

“Partidu ofizial batean debutatu gura nuke Amorebieta futbol klubean”

Mikel Goiria Vazquez
Amorebieta F.K. • 25



Ferixa Nausikorik barik "arduraz jokatzeko" eskatu du Elorrioko Udalak

Elorrio • Jaiak bertan behera utzi arren, Elorrioko Udala ardura-tuta dago. Beste herri batzuetan gertatu dena ez errepikatzeko, Ertzaintzagaz hartu-emanetan ipiniko da gauetan jarraipen zehatzagoa egiteko. • 3



Eskolara buelta neurri berrieekin

Ikasturtea ezjakintasun handiagaz abiatuko da datorren astelehenean. Hezkuntza Sailak ezarritako neurriak kontuan hartuta, milaka ume eta gazte bueltatuko dira ikasgeletara. Sei urtetik aurrerako umeek maskara ipinita izan beharko dute. ANBOTOk eskualdeko hezkuntza komunitateko hainbat profesionalen iritzia jaso du erreportajearen. • 4-5



42 emakumeren lanak 'Sorginak' erakusketan ikusgai Durangon

Durango • Besteak beste, Goiuri Aldekoa-Otalora durangarraren lana ere egongo da ikusgai; barikuan inauguratu dute, Durangoko Arte eta Historia Museoan. Bisita gidatuak ere egingo dituzte. • 22



DURANGALDEKO HELDUEN HEZKUNTZAKO IKASTETXEA
CEPA DURANGO HHI
Doako irakaskuntza ofiziala

Laubideta kalea, 6 DURANGO · Tel.: 946 814 253
www.epadurango.hezkuntza.net



- Atzeritarrentzako gaztelania eta euskara ikastaroak.
- Hasierako irakaskuntzak.
- DBHko graduatua
- Goi mailako zikloetarko sarbide probak
- Informatika ikastaroak.
- Ingelesa (hasiera maila).



MATRIKULA ZAITEZ - 946 814 253
www.epadurango.hezkuntza.net

MATRIKULA-EPEA:
Irailaren 2tik 13ra

Matrikula egiteko ordutegia: Asteleheneetik ostegunera: 09:00-13:00/16:00-19:00
Ostiraletan: 09:00-13:00

Landakoko igerileku estaliak astelehenean zabalduko ditu berriro ateak; oraingoz, aurretiazko hitzordurik barik

Aldagelak arropa aldatzeko baino ezingo dira erabili eta ezingo da bertan dutxatu. Maskara ipinita eraman beharko da igerilekuraino



Hainbat hilabeteen itxita egon eta gero, Landakoko igerileku estaliak ateak zabalduko ditu berriro.

DURANGO • EKAITZ HERRERA

Hainbat hilabeteen itxita egon eta gero, Landakoko igerileku estaliak prest daude kirolariak hartzeko. Astelehenean zabalduko dituzte ateak. Oraingoz behintzat, ez da aurretiazko hitzordurik hartu beharko, baina Durango Kiro-

lak entitateak azaldu du egoerak etorkizunean hala eskatuko balu, aurretiazko hitzordu-sistema ezarriko lukeela. Gainerakoan, osasun egoerari lotutako protokoloak zeintzuk diren argitu dute.

Astelehenetik aurrera, aldagelak arropa aldatzeko eta sika-

tzeko baino ezingo dira erabili. Edo beste era batera esanda, aldageletan ezingo da dutxatu. Hango dutxen orde, igerilekuaren eremuan dauden dutxak erabili beharko dira gorputzean geratu daitezkeen kloro arrastoak garbitzeko. Durango Kirolakek maskarari buruz ere

eman ditu zehaztapenak. Toki guztietan legez, ezinbestekoa izango da maskara erabiltzea, eta zehaztu dute igerilekuraino bertaraino joan behar dela maskara ipinita. Bestalde, eraikinaren sarreran desinfektatzeko gunea egongo dela aurreratu dute.

Rokodromoko neurriak

Rokodromoari lotutako jokabideak zeintzuk izan behar diren ere azaldu du Durango Kirolakek. Orokorrean, eskalatzaileek ipinita eraman beharko dute maskara, baina kentzeko aukera izango dute esfortzu handiko ari-

Eskalatzaileek maskara kendu ahalko dute esfortzu handiko ariketetan"

Rokodromoko erabiltzaileek aldageletako dutxak erabili ahalko dituzte, beharrezkoa balitz"

keta egiten ari badira eta bertako begiralearen onespena jasotzen badute. Rokodromoko aldagelak dutxarako erabili daitezkeela aurreratu dute, baina posible den neurrian hori ekiditea eskatu dute.

Argazkirik ederrenak ateratzeko lehia, Etxanoko auzo elkartearen eskutik

Etxanoko auzo elkarteak argazki lehiaketa antolatu du. Bertan parte hartzeko epea urriaren 4ra arte dago zabalik. Jasotako argazkiekin 2021eko egutegia osatuko dute



Etxanon zein Etxanoko auzo elkarteak osatzen duten auzoetan ateratako argazkiak lehiatu ahalko dira.

ZORNOTZA • EKAITZ HERRERA

"Ekintza kulturalak antolatuta jendea pilatu egin zitekeela ikusten genuen. Horregaitik, auzotarrek parte hartzeko moduko egitasmo bat antolatzea erabaki dugu, berez, inolako arriskurik ez duena", azaldu du Pablo Monasterio Etxanoko auzo elkarte-kideak.

Elkarteak argazki lehiaketa bat antolatzen duen lehenengo aldia da, baina argi ditu aurrera begirakoak: jasotako argazkiekin 2021eko egutegia osatuko dute. Eta ez hori bakarrik. Kamera hartu eta Etxanoko inguruetan zehar argazki-ehizan aritzeko gogoia pizten duten sariak sortu dituzte. Lehenengo sarituak 300 euro eskuratuko ditu. 175 bigarrenak, eta beste 100 hirugarrenak. Horrez gainera, laugarren sari bat ere egongo da, baina Etxanoko auzo elkartearen parte-hartzaileei zuzenduta dago. "Lehiaketa zabala da. Gura duenak parte hartu dezake, baina sarietarikoa bat Etxanoko auzo elkartearen bazkideen argazkien

arteak erabakiko da", esan du Monasteriok. Kasu horretan, 150 euroko saria eskuratuko du irabazleak.

Oinarriak

Lehiaketan parte hartzeko arau nagusia da aurkeztutako argaz-

"Lehiaketa zabala da, baina sari bat elkartearen bazkideen argazkien artean erabakiko da"

Irabazleak 300 euroko saria eskuratuko du; 175 bigarrenak eta 100 hirugarrenak

kiak Etxanon edo Etxanoko auzo elkartearen osatzen duten gainerako auzoetan egindakoak izan behar direla. Lanak etxanokoauzoelkartera@gmail.com helbidera bidali behar dira, JPG formatuan, norbere datuekin.

Aurten Ferixa Nausikorik ez dela egongo eta "arduraz jokatzeko" deia egin diete Elorrioko Udaletik herritarrei

Beste herri batzuetan gertatu denagaz arduratuta daude Elorrion. Irailaren 5etik 13ra, inguruko herrietako bizilagunei Elorriona ez joateko eskatu diete



Elorrion hainbat neurri hartu dituzte iraileko lehenengo asteburu bietarako.

ELORRIO • MAIALEN ZUAZUBISKAR
Ferixa Nausikoak iraileko lehenengo asteburuan ospatu ohi dira. Baina COVID-19aren gaitza hedatu denetik, Euskal Herrian ez da jairik ospatu ohi den moduan, eta Elorriokoak ere bertan behera uztea erabaki zuten. Erabakia udalak eta herriko eragileek aho batez hartutakoa izan zen. Julene Lazkano kultura eta gazteria zinegotziaren hitzetan, "zentzuz eta arduraz jokatzeko sasoia da hau".
Jairik egongo ez den arren, koronabirus sasoian sortu den ez-jaien kontuak kezka eragiten du

gizartean. Horiei eta jende pilaketei aurre egiteko asmoz, Elorrioko Udalak zenbait neurri hartu ditu. Idoia Buruaga Elorrioko alkateak ANBOTOri azaldu dionez, udaltzaingoak lanketa bat egin du herriko tabernek batera eta kontuan hartuta Elorrion gauez udaltzainik

ez dabilela, Ertzaintzagaz berba egingo dute. "Kontuan hartuta Ertzaintzak asteburuetan jarraipena egiten duela, eurekin berba egingo dugu eta mesedez eskatuko diegu berez jaiak izango ziren asteburu horietan jarraipen berezia egiteko", aitortu du Buruagak. Horrez

gainera, udaletik kontzientziazio kanpaina bat egin dutela esan du, orokorrean egunerokoan arduraz jokatzeko.

Udala Ertzaintzagaz hartu-emanetan ipiniko da, gauetan jarraipen zehatzagoa egin dezaten

Elorrioko tabernetan arduraz jokatu dela eta jokatu dutela esan du Portalekuko arduradunak

Bestalde, Niko Moreno Portalekuko arduradunak esan du euren ere badela ardura, baina deseskalatzea hasi zenetik beti arduratsu jokatu dutela. "Orain badakigu zer datorrigun, asteburua, eguraldi ona eta oporrak amaitu berri. Badugu ardura, baina ardura denontzat da eta kontziente gara momentu zailak biziko ditugula. Baina tabernariok ordutegiak beteko ditugu, orain arteko moduan. Hori bai, arazoak egotekotan tabernak itxi eta gero egongo direla esango nuke", amaitu du Morenok.

'Matriuska' antzezlanagaz emango diote hasiera iraileko kultur egitarauari

Berrizko Kultur Etxeak hainbat ikuskizun antolatu ditu irailerako Kulturaz Blai ekimenaren barruan



Matriuska antzezlanaren irudi bat.

BERRIZ • MAIALEN ZUAZUBISKAR
Berrizko Kultur Etxeak iraileko kultur programazioari hasiera emango dio gaur iluntzean. Programazio hau Kulturaz Blai egitarauaren barruan antolatu dute. Hori horrela, 20:00etan eskolako patiora doazenek Kamikaz eta Ttak teatroek eskaintzen duten *Matriuska* antzezlanagaz gozatzeko aukera izango dute.

Berrizko Kultur Etxeak antolatu dituen ikuskizunen egitarautik lehenengoa izango da gaurkoa. Bestalde, irailaren 12an, Deabru Beltzak taldekoek *Tambores de fuego* antzezlanak eskainiko dute. Eta irailaren 18an Zanguango teatrokoek *Al otro lado* ikuskizuna. *Mülir* dantza ikuskizunagaz emango diote amaiera iraileko egitarauari.

Segurtasun neurriak
Antolatzaileek jakinarazi dutenez, ezinbestekoa izango da Kulturaz Blaiko ekitaldietan segurtasun neurriak betetzea, eta baita maskara erabiltzea ere.

Atxondoko Udalak eskolako txintxaunak estaliko dituela iragarri du

Herriko Eskola indartu eta euri egunetan umeek beste aukera bat izan dezaten egingo dituzte lan hauek

ATXONDO • MAIALEN ZUAZUBISKAR
Atxondoko Udalak iragarri duenez, Atxondoko Herri Eskolako txintxaunak estaliko dituzte datozen asteetan.

Udaletik jakinarazi dutenez, lan hauek hiru helburu nagusi dituzte. Alde batetik, herriko eskola indartzen jarraitzea. Bestetik, euria egiten duen egunetan herriko gaztetxoek beste espazio bat edukitzea jolasteko. Eta, azkenik, 2019ko ekainean Ziarreta kaleko joko-eremua itxi ondoren, beharrezko segurtasun neurriak betetzen ez zituelako, hartutako konpromisoari erantzutea. Hau da, Atxondon jolasgune berriak sortzea. "Euria egiten duen egunetan Atxondok aukera gutxi du txikientzat, eta eskoletako jolasgunea estaltzea garrantzitsua eta

beharrezkoa dela uste dugu, are gehiago egungo egoeran", azaldu du Xabier Azkarate alkateak.

9 metroko estalkia
Udaletik jakinarazi dutenez, irailaren bigarren astean hasiko di-

Atxondon jolasgune berriak sortzeko hartutako konpromisoa bete gura du udalak

tuzte lanak. Polikarbonatozko estalki finko bat ipiniko dute. Lau zutabek osatuko dute txintxaunak estaliko dituen estalkiaren oinarria. Estalkiak 9 metroko luzera izango du.



Ezohiko buelta eskolara

Ikasturte hasiera astelehenean abiatuko da. COVID-19aren eraginez, familiek eta ikastetxeek ardura eta nahasmen handiz bizi dute klase presentzialen itzulera

DURANGALDEA • E.HERRERA/J.GUENETXEA

Ikasturte hasiera urduritasunez bizi izaten den sasoia da. Gela edo irakasle berria, ikasgai gehiago... Aurtun, aldaketa horri koronabirusaren prebentziorako neurriak gehitu beharko zaizkio. Eusko Jaurlaritzak arau orokor batzuk eman ditu. Sei urtetik gorako haurrek maskara ipinita eraman beharko dute gelan. Arau berrietara ohitu beharko dira, bai ikasleak, irakasleak eta baita familiak ere. Beraz, maskaraz gainera, motxilan pazientzia dosi handi bat ere sartu beharko da.

Jaurlaritzak aurreratu duenez, "ikastetxe bakoitzak arduradun bat izango du COVID-19agaz lotutako alderdiak lantzeko". Era berean, ikastetxe bakoitzak erreferentziako ESI bat izango du (Erakunde Sanitario Integratua). Ikasle edo irakasle batek COVID-19agaz bateragarria den sintomarik badu, ez du ikastetxera joan beharko. Jaur-

laritzak dioenez, azkenean kasua baieztatzen bada, ikastetxea bere erreferentziako ESI-agaz hartu-emanetan ipiniko da, eta "uneoro Osasun Publikoaren jarraibideak beteko dira".

Neurri hauek nahikoa ez direla iritzita, sindikatu guztiek greba deialdia egin dute hezkuntzan, irailaren 15erako. Deialdiak sare publikoari zein itunpekoari eragingo dio. Langileak aintzat hartu ez izana ere salatu dute sindikatuek.

Testuinguru horretan, ikastetxe bakoitza bere jarduna moldatzen dabil, ikasleak gelara ahalik eta segurtasunik handienagaz bueltatzeko. Idoia Elorriaga iurretarra irakaslea da Traña-Matienako eskolan. Elorriagak dioenez, Hezkuntza Sailak osasun arloko irizpide batzuk eman dituen arren, ardura guztia zentroen esku utzi du: "Erantzukizun guztia ikastetxeengan utzi dute. Zentro bakoitzak kontingentzia plan bat antolatu behar du.

“Hezkuntza Sailak osasun arloko irizpide batzuk eman dituen arren, ardura guztia zentroen esku utzi du”

IDOIA ELORRIAGA

Sarrera-irteerak zelan egin, talde egonkorak zelan sortu, jolas-orduko eta jantokiko denbora zelan antolatu...". Elorriagak kritikatu duenez, "Hezkuntza Sailak osasunari buruzko irizpideak eman ditu, baina arlo pedagogiari buruz ez du ezer esan". Era berean, kontziliazioa ere ez dela erraza izango aitortu du. "Seme-alabaren bat denbora batez etxean egon behar bada, eta gurasook lanera joan behar badugu, zelan antolatuko gara familiok?", galdetu du. Irakasle eta guraso den aldetik, sei hilabeteren ondoren ume eta gazteek zelan erreakzionatuko duten kezka du.

anboto

Bixente Kapanaga, 9
48215 Iurreta - Bizkaia
Tel.: 946 816 558

Erredakzioa: 946 232 523
Publizitatea: 946 217 902
publi@anboto.org

2020ko irailaren 4a
18. urtea - 818. alea

Lege gordailua:
BI-2268/01
ISSN:
1578-7028
Tirada:
12.000 ale

Zuzendaria: Jone Guenetxea Arrinda.
Erredakzio burua: Ekaitz Herrera Azkarraga
Administrazio burua: Itziar Belar Zubizarreta.
Administrazioa: Miren Abasolo Txabarri.
Publizitatea: Alazne Salcedo Artetxe eta Goretzi Alonso Armendia
Erredakzioa: Aitziber Basauri Gandiaga, Joseba Derteano Bilbao, Maialen Zuazubiskar Gallastegi, Aritz Maldonado Zabala.
Maketazioa: Bea Sierrasesumaga Guezuraga.
Zuzentzailea: Mikel Azkarraga Etxegibel.



Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du



EUSKO JAURLARITZA

GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak diruz lagundua



Ikasgelak ikaslez beteko dira astelehenean.

Euskararen erabilerak kezka handia sortzen digu. Egoera honek areagotu egin du jaitziera erabileran”

COVID-19 birusak berdin eragiten die hezkuntza sistema osoko ikastetxeei, eta horregaitik eskatu diogu Eusko Jaurlaritzari sistema osoarekiko dituen erantzukizunak bereganatu eta betetzeko. Besteak beste, ikasleen arteko dis-

tantzia ezin delako mantendu gela bikoiztu behar denean. Edozelan ere, eskolara bueltaren garrantzia azpimarratu du Maortuak. "Euskararen erabilerak kezka handia sortzen digu. Lehendik ere antzeman genuen jaitsiersia bat erabileran, eta egoera honek areagotu egin du, hainbat ikaslek ez dutelako etxean euskaraz egiteko aukerarik. Argi dago hautu metodologikoak aldatu egin beharko direla egoerak hala eskatzen duelako, baina egoera honetatik badugu zer ikasi", esan du Maortuak.

“Umeei laguntzeko, ikasturte hasieran gertatu daitekeena aurreratzen joan gaitezke”

JOSU SAETERO

Guraso lez, Maortuak dioenez, "egunean egunekoa bizi behar-ko dugu, badakigu hau luzerako kontu bat izango dela eta egoerak eskatzen duen horretara moldatu beharko dugula".

Josu Saetero psikologo abadiñarrak azaldu duenez, "umeei laguntzeko, ikasturte hasieran gertatu daitekeena aurreratzen joan gaitezke. Hau da, azaltzea zein egoera sortu daitekeen, zelan topatuko ditugun klaseak, zer gertatu daitekeen eta abar. Gauzak zelan joan daitezkeen azalduta, ziurgabetasun maila txikitu egiten da eta ezinegona desagerrarazten joan daiteke". Bestalde, umeei sozializatzeko duten beharrik nabarmendu du Saeterok. "Ongizate emozionala oso lotuta dago sozializazioagaz. Arauak aldatu egin dira, baina sozializazioak aurrera segitzen du. Ez da eten. Jolasak aldatu egingo

dira, baina sozializazioak aurrera segituko du, beste era batera bada ere. Eta hori da, hain zuzen, umek behar dutena”.

Ikasturte honetan eskolaz kanpo-ko ekintzak planifikatzea zaila izaten ari da, bai kirolean, bai hizkuntzak ikasteko, baita arlo artistikoan ere. Alice Doyle Durangoko Pym's ingeles akademia-ko kidea da. Doyleren esanetan, "eskolarako buelta konplexua izaten ari da. Taldeak osatzen ari gara, baina badira zailtasunak. Gogoia egon badago, baina konplexua da eskolaz kanpoko ekintzak antolatzea", aitortu du irakasleak. "Ingeles klaseak, ordutegi bat izatea, errutina bat markatzea, azken finean, beharrezkoa dela iruditzen zait. Eutsi egin behar diogu. Hau pasatuko da", gaineratu du Alice Doyle ingeleseko irakasleak.

Maskara erabiltzea derrigorrezkoa izango da Lehen Hezkuntzako 1. mailatik aurrera

- Ikastetxe bakoitzak erreferentziazko Erakunde Sanitario Integratu (ESI) bat izango du.
- Hezkuntza Sailak 1.000 irakasleren aparteko kontratazioa aurreikusten du errefortzu handiagoa behar duten ikastetxeetarako.
- HH, LH eta DBH 1 eta 2: irailaren 7an. BH 3 eta 4, eta Batxilergoa: irailaren 15ean. Epaitegitik irtetea, jurain, eta ez dago argi hurrengo berria noiz izango den.

The image displays three distinct advertisements for hair salons, each with a unique color scheme and branding.

- Estetika gida:** Features a dark blue background with a large, stylized white 'E' on the left. The text 'Estetika gida' is in a large, white, sans-serif font, with 'anboto' in a smaller font below it. A small white telephone icon is in the bottom right corner.
- NUKLEO:** Has a dark blue background. It includes a black and white portrait of a man with curly hair. The text 'NUKLEO' is in large, bold, white letters, followed by 'ileapaindegia' in a smaller font. The phone number '946 582 996' is prominently displayed in large white digits. Below it, the address 'Nizeto Urkizu, 14 behea ELORRIO' is written in white. A white telephone icon is in the bottom left corner.
- ILE-APAINDEGIA:** Features a light blue background. The top half shows a photograph of a modern hair salon interior with long wooden tables, white chairs, and large oval mirrors. The text 'ILE-APAINDEGIA' is in a large, bold, light blue font. Below it, the phone number '946 216 491' is in a smaller light blue font. The address 'Antso Estegiz, 1 DURANGO' is written in a smaller light blue font. A white telephone icon is in the bottom left corner.

Zazpi hilabete bete dira Zaldibarko zabortegia amildu zenetik

Alberto Sololuzeren gorpua aurkitu ondoren, Verter Recycling hondakindegian desagertuta jarraitzen duen Joaquin Beltran langilearen bila jarraitzen dute



Zaldibar Argitu plataformaren mobilizazio bateko argazkia.

ZALDIBAR • JONE GUENETXEA

Domekan zazpi hilabete pasatuko dira Zaldibarko Verter Recycling zabortegian lur-jausia gertatu zenetik. Lur-jausian desagertu ziren behargin bietako baten gorpua abuztuan aurkitu zuten. DNA proben lehenengo emaitzak jasota, Zaldibarko zabortegian aurkituta-

ko hezurak Alberto Sololuzerenak zirela baieztatu zuen Eusko Jaurlaritzak.

Otsailetik hona langile bi desagertuta egon dira Zaldibarko zabortegian: Alberto Sololuze eta Joaquin Beltran. Abuztuaren 18an Alberto Sololuzeren gorpua aurkitu zuten, baskula zegoen inguruan,

23 metroko sakoneran. Oraindino desagertuta dagoen langilearen, Joaquin Beltranen, bila jarraitzen dute.

Zaldibar Argituz

Lur-jausia gertatu zenetik, Zaldibar Argitu plataformak mobilizazioak antolatu ditu erantzukizunak es-

katzeko. Plataformako kideek euren "elkartasunik beroena" bidali zieten Sololuzeren senitarreko eta lagunei, baita Joaquin Beltranen familiari ere. "Alberto Sololuzeren gorpuzkinak aurkitu izana aurre- rapena da, batez ere familiarentzat, dolu prozesuan aurrera egin ahal izateko", esan zuten

Beltran aurkitu arte lanean jarraituko dutela esan dute Zaldibar Argitukoek, baita erantzukizun politiko guztiak herritarren aurrean argitu arte ere. "Lanean jarraituko dugu, tragedia honek herritarren osasunean eta ingurumenean izan dituen eta izango dituen ondorioak ezagutu arte, eta erantzukizun politiko guztiak herritarren aurrean argitu arte", azaldu dute.

Mugitzen dabilzan hondakinak gordetzeko biltegia handitzeak eragozpenak sortu dizkie Eltzaga auzoko bizilagunei. Biltegia

Erantzukizun politiko guztiak argitu arte lanean jarraituko dugu", dio Zaldibar Argituk

egokitze materiala daramaten kamioiak auzotik pasatzen dira. Auzokideek salatu dutenez, egunean 80 bat kamioi pasatzen dira bertatik.

Epaitegien bidea

Hondakindegiko jabeen kontra abiatutako auziak aurrera jarraitzen du epaitegietan. Uztailaren amaieran Verter Recycling enpresako hiru arduradun atxilotu zituzten. Durangoko auzitegian epailearen aurretik pasatu eta gero, behin-behinean libre utzi zituzten. Ikertuek 48 ordu igaro zituzten atxilotuta, Eibarren. Naizek asteon kaleratu duenez, Durango-ko auzitegiak Verter Recyclingen aurkako prozedura biak bateratzea erabaki du. Pauso hau emanda prozedura arintzea da helburua.

Abadiñon, Astolako igerilekuak 2.720 sarrera izan ditu abuztuan zehar

ABADIÑO • JONE GUENETXEA

Astolako igerilekuko estalkia kendu eta beste konponketa batzuk egin eta gero, udalak abuztuan zabaldu zuen azpiegitura. Prentsa oharrean azaldu dutenez, 2.720 sarrera izan zituen joan zen hilean. Udako denboraldiak irailaren 30era arte iraungo du eta Astolako kirol azpiegitura astelehenetik domekara egongo da zabalik irail-lean, 10:00etatik 21:00etara, baina 20:30ean irten beharko da uretatik.

Bestalde, Astolako gimnasioak 624 sarrera izan zituen uztailan,

eta 923 abuztuan. Koronabirusa kutsatzea saihesteko, udalak 250 lagunera mugatu du igerilekuetako aforoa. Igerileku esparruaren barruan ezarritako segurtasun eta osasun neurriak mantendu behar direla gaineratu dute. Aldagelak zabalik dauden arren, horiek ez erabiltzea gomendatu du udalak. Era berean, leihatila gutxi batzuk baino ez daude zabalik. Igerilekuan lau kale ipini dituzte igeriketarako, eta, gehienez, hiru igerilari izango dira kale bakoitzean.



Astolako igerilekua.

Kaixo



Eskola



VISTO **BUENO**
Eskolarako mantala
Neurriak: 0 - 7

PSP
10,99€

bazkidea baldin bazara

8,99€

2€ 

2020ko 08/27tik 09/23ra

* Kutxatik pasatzean, zure Eroski Club Txartlean sartuko dizugu, unean bertan, erositako produktuaren deskontuaren zenbateko baliokidea. Zenbateko hori hurrengo erosketetan trukatu ahal izango duzu. Deskontu horrek ez du balio «azken unitateak» seinala duten produktuetan.

Hipermerkatuak



EROSKI

zurekin

Amankomunazgoak eta Durangaldeko beste hainbat eragilek bizikleta 30 egunean erabiltzeko erronka ipini dute martxan

Mugikortasun ohiturak eraldatzen hasteko erronka da '30 egun bizikletan' egitasmoa. Bizikletan egunean gutxienez kilometro bat egitera deitu dute

DURANGALDEA • A.M./M.Z.

Amankomunazgoak eta Durangaldeko beste hainbat eragilek bizikleta erabiltzera deitu dituzte herritarrek. Erronka argi bat sortu dute horretarako: 30 egunean zehar bizikleta erabiltzeko deia egin dute. Egun bakoitzean gutxienez kilometro bat egin beharko da bizikletan. Egitasmoan parte hartzeko, mugikortetarako Bikefriendly aplikazioa jaitxi beharko da, eta erabiltzaileak izena eman beharko du 'Durangaldea' taldean. "Partaideek egunero pedalei eragitea da helburua, mugikortasun aktiboa eta ohiko joan-etorrietan bizikletaren erabilera sustatzeko", azaldu dute Amankomunazgoko iturriek ohar batean. Erronka irailaren 1ean hasi zen eta hilaren 30ean amaituko da.

Erronkako parte-hartzea sustatzeko, 30 kilometroak egin dituzten parte-hartzaileen artean hainbat sari zozkatuko dituzte: bizikleta tolesgarri bat, bizikleten egoera gainbegiratzeko 10 azterketa eta 10 kafe sorta.



Mugikortasun ohiturak eraldatzen hasteko erronka da '30 egun bizikletan'.

Amankomunazgoak eta Durangaldeko beste hainbat eragilek hartutako konpromisotik sortu da erronka. Hemendik urte batzuetara, Durangaldea bizikletaren erabilerarako lurralde lagunkoia izatea gura dute, eta helburu zehatz bat markatu dute horre-

tarako: bizikletaren eguneroko erabilera %0,6 izatetik %5 izatera pasatzea 2023rako. Eskualdeko 22 bat eragile dabilza elkarlanean.

Elorriok ere bat egin du

Elorrioko Udalak ere bat egin du egitasmoagaz, eta herritarrek dei-

tu ditu 30 eguneko erronkan parte hartzera. Horregaitik, irailean egunero bizikletan joan-etorriak egiten dituztenen eta hile osoan gutxienez 30 kilometro egiten dituztenen artean bizikleta elektriko bat zozkatuko du udalak. Erronkan parte hartu gura duten

elorriarrek Bikefriendly aplikazioa deskargatu eta erabiltzailea sortu beharko dute. Ondoren, aplikazioan Elorrioko taldea topatu eta haregaz bat egin beharko dute.

Bikefriendly aplikaziora jo eta 'Durangaldea' izeneko taldean eman behar da izena

Elorrioko herritarrek Elorriori dagokion taldea topatu dezakete; udalak bat egin du erronkagaz

Bestalde, udalak jakinarazi du erakunde modura ere parte hartuko duela ekimenean, eta udaleko langileen artean bizikleta erabiltzea sustatuko dutela.

Garaiko landetxean ohi baino bisitari gazteagoak egon dira uda honetan zehar

Garaiko landetxeko kideek diote opor sasoiak "gazi-gozoa" izan dela. Eutsi diote orain artekoari, eta baikortasunez heldu gura diote etorkizunari. Elkarlanerako deia egin dute

GARAI • EKAITZ HERRERA

Garaiko landetxeko kideek opor sasoiaren balantze gazi-gozoa egin dute. "Alde batetik, balantzea gozoa da lan handia egin dugulako, beharginen lanpostuei eustea lortu dugulako eta inolako osasun arazorik egon ez delako; baina gazia da etekinik lortu ez dugulako", azaldu du Jasone Gezuragak, Garaiko landetxeko arduradunak. Pandemiaren eraginez sortutako

gastuak estaltzea lortu dute uda honetan zehar, baina aitortu dute negozio lez ez dutela beharrezko etekina lortu. Inoiz baino bisitari gazteagoak izan dituzte. Adinaren batez bestekoa jaitxi egin da eta ho-

"Denon artean sinergiak sortu eta aurrera egitea dagokigu. Durangaldea zaindu egin behar dugu"

rrek isla izan du kontsumoan. "Gazteriak hemen lo egin arren, gurago dute kafea edo dena delakoa kanpoan hartu", dio Gezuragak.

Edozelan ere, etsi barik, tinko begiratzen dio etorkizunari. Durangaldeko eragileen arteko elkarlanera deitu du Gezuragak. "Durangaldea denona da eta zaindu egin behar dugu. Denon artean sinergiak sortu eta aurrera egitea dagokigu", gaineratu du.



Garaiko landetxearen barrualdea.

A. Urreta podologo

Ainara Urreta Jainaga

OINETAKO PATOLOGIAK
NEURRIRA EGINDAKO PLANTILLAK
OINETAKO BESTE HAINBAT GAITZ

Herriko gudarien kalea, 10 beheka - DURANGO
Tel./Faxa: 946 215 404

GAER DESINFEKZIOAK

Mota guztietako intsektuak eta arratoiak hiltzen ditugu:

LABEZOMORROAK, INURRIAK, JANTZI-SITSAK, ARRATOIAK, ARKAKUSOAK, ERLEAK...

Iturriza, 42 - 2 ezk. - Tel./Faxa: 946 225 774 / 658 757 279 - BERRIZ

Martxan da udako argazki lehiaketa.
Igo zure argazkiak
irailaren 14ra arte

UDA KO 6. ARGAZKI LEHIAKETA

anboto 
komunikabideak



Durangaldetik kanpoko
2019ko argazkia
IRABAZLEA

Durangaldeko 2019ko
argazkia
IRABAZLEA



2 KATEGORIA SARITUKO DIRA

- ESKUALDEKO ARGAZKIRIK ONENA
- DURANGALDETIK KANPOKO ARGAZKIRIK ONENA

ANTOLATZAILEA

anboto 
komunikabideak

LAGUNTZAILEAK


DURANGO


Garaiako
Landetxea

Informazio gehiago www.anboto.org webgunean

Kutsatze kopuru alarmagarririk barik, baina alarma jaisteko motiborik barik

Datuek egunez egun gorabeherak izaten dituzten arren, une honetan behintzat egoera nahiko egonkorra da Durangaldean. Osasun Sailak modu arduratsuan jokatzeari eskatu du



Positiboen kopurua gorabeheratsua izaten ari da egunez egun.

DATUAK • EKAITZ HERRERA

Ez ur, ez gatz. Ez hotz, ez bero. Koronabirusak ez du alarmarako botoirik sakatuarazi Durangaldean, oraingoz behintzat, baina horrek ez du esan gura, inondik inora, patxada hartzeko momentua bizi dugunik. Urruti geratu dira PCR positiborik bako egun haiek, uda hasieran jada positiborik ez zegoela irudi zuten egun haiek.

Jada urruti gelditu dira uda hasierako egunak, positiborik atzematen ez ziren egunak

Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak koronabirusaren bigarren olatuan sartuta geundela ohartarazi zuen abuztuaren 28tik domekara (abuztuaren 30era) bitartean, PCR bidezko 43 kasu berri detektatu ziren Durangaldean. Durangon 14 kasu detektatu zituzten, Zornotzan 10, Elorrion 7, Abadiñon 6, baina Berrizen eta Iurretan, eta bana Atxondon eta Zaldibarren.

lekutxoan egin du Durangaldean. Gurean egunero erregistratu ohi dira eskubete kasu. Eta kopuru erraldoiak ez diren arren, ez dira bizkarra emateko modukoak.

Aste hau hasi berritan, joan den asteburuko kutsatzeen berri eman du Osasun Sailak. Barikutik (abuztuaren 28tik) domekara (abuztuaren 30era) bitartean, PCR bidezko 43 kasu berri detektatu ziren Durangaldean. Durangon 14 kasu detektatu zituzten, Zornotzan 10, Elorrion 7, Abadiñon 6, baina Berrizen eta Iurretan, eta bana Atxondon eta Zaldibarren.

Kontuak apur bat lasaitu ziren astelehenean. Positibo emandako PCR probek behera egin zuten (7 izan ziren eskualde osoan) eta herri bitan baino ez ziren gaixoak atzeman: 4 ziren Durangon eta 3 Abadiñon.

Lehengo lepotik burua

Asteleheneko beherakadak arnas

apur bat hartzea ekarri badu ere, martitzenean goranzko joera hartu dute kutsatzeek. 22 izan ziren eskualdean. Durangon (8), Zornotzan (4), Berrizen (4), Abadiñon (2), Zaldibarren (1), Atxondon (1), Iurretan (1) eta Elorrion (1) detektatu zituzten koronabirus kasu berriak. Edizio hau ixterako (eguna), Osasun Sailak eman barik zituen eguazteneko datuak.

Astelehenean 7 positibo atzeman ziren Durangaldean; martitzenean, 22

Zerumuga oraindino ez dago garbi, eta ikusteko dago ea zein bide hartuko duen pandemiak aurrerantzean. Dena dela, Osasun Sailak ohiko prebentzio neurriak aplikatzen segitzeko eskaria egin du.

20 minutuko gehienezko aparkaldiak lurretako botikaren eta postetxearen inguruetan

Udalak txandakako aparkaleku sistema ezarri du, Bixente Kapanaga eta Bidebarrieta kaleen eremu banatan



Botikaren pareko inguruan 20 minutuz aparkatu ahalko da aurrerantzean, gehienez.

IURRETA • JONE GUENETXEA

Iurretako Udalak aparkalekuari buruzko udal ordenantzaren (TAO) aldaketa onartu du eta errotaio handiko gune bi sortu ditu horregaz. Berrikuntza nagusia da gehienez ere 20 minutuz aparkatu ahalko dela Bixente Kapanaga kaleko 1 zenbakitik 7ra bitartean (botikaren parean) eta Bidebarrieta kaleko hainbat aparkalekutan. "Txandakatze handi horri esker, gestio eta erosketarik azkarrak, gestio eta erosketarik azkarrak zailtasunik barik egin ahal izango dira, tokiko merkataritzari mesede eginez", azaldu du udalak.

Txandakako ordutegia honakoa da: 9:00-13:30, 16:30-19:30 (astelehenetik barikura) eta 9:00-13:30 (zapatuetan).

Bestalde, Ibarretxe kultur etxearen ondoko errotaio urdineko gunea 15 plaza gehiago eginda handitu dute. Gehienez ere ordu eta erdi aparkatu ahalko da bertan. Egoiliarrentzako aparkalekua, laranja kolorekoa, Ibarretxe, Bidebarrieta, Maspe eta Zubiaurreko aparkalekutan mantenduko da. Aparkaleku libreko guneek berdin jarraituko dute Paduretan eta Bideondon.

Iurretako EH Bilduk kontsumo ereduaz eta Mercadonaren proiektuaz eztabaidatzea eskatu du osoko bilkuran

Mercadonari eta kontsumo ereduari lotutako eztabaida bat zabaltzea eskatu dio udal gobernu taldeari

IURRETA • EKAITZ HERRERA

Iurretako EH Bilduk kezkaz begiratzen dio Mercadon supermerkaturu kateak herrian zabaltzeko duen saltokiari. Irekierak Durangaldeko ekoizle eta dendariak kaltetu ditzakeela eta, "eztabaida zabaltzeko eta herriari ahotsa emateko" eskatu dio udal gobernu taldeari. Koalizio subiranistaren berbetan, herriko eta eskualdeko dendari eta ekoizleei lagundu gura bazaie, beharrezkoak dira hausnarketa eta eztabaida. "Zelako herria gura dugu? Zein kontsumo eredu bultzatu gura dugu?", galdetu du Iurretako EH Bilduk. "Iurretan hutsik dauden lokalak dira nagusi, eta horrelako erabakiek ez dute lagunduko herri bizi

bat izan dezagun", gaineratu dute. Uztailean publiko egin zen Mercadonaren etorrera Mallabien industrialdera, EH Bildu taldearen informazioa oinarritzat hartuta. Koalizio subiranistak moztio bat

"Zelako herria gura dugu? Zein kontsumo eredu bultzatu gura dugu?", galdetu du koalizioak

aurkeztu zuen uztaileko osoko bilkuran, eta errekurtsua ezarri zion supermerkatuari eraikitze baimena ematen zion alkatetza dekretuari. EH Bilduren esanetan, eraikitze baimenaz gainera "beste baimen" batzuk falta ziren.

250

Ospitaleratutako herritar kopurua

Martitzenean 250 herritar zeuden Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako ospitaleetan koronabirusak jota.

39

Zainketa Intentsiboe-tako Unitatean (ZIU) dagoen herritar kopurua

Martitzenean 39 herritar zeuden ZIU geletan artatuta.

0,99

Birusaren biderkatze indizea, R0 delakoa

Martitzenean 1 balioaren muga kokatu zen Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako biderkatze indizea.

Argindar azpiegitura sartu eta Trabakuko goiko pasabidea irailean zehar zabaltzea aurreikusten dute

Tunelean argindar sarea sartzea eta pasabideko sarreran hesiak ipintzea falta da lanak amaitzeko



Pasabide estalia abuztuaren hasieran ipini zuten.

MALLABIA • JOSEBA DERTEANO

Trabakuan amaitzeaz daude BI-633 errepidea zeharkatu ahal izateko bide ginetik joango den pasabidea egiteko lanak. Azpiegitura nagusia, pasabide estalia,

abuztuaren hasieran ipini zuten errepidearen gainean, gaueko ordu batzuetan trafikoa geratuta. Orain, pasabide barrua argituko duen argindar sarea sartzea falta da. Horregaz batera, pasabideko

sarreretan abereak hara bideratuko dituen hesi bat ere egingo dute. Lan horiek amaitzen direnean zabalduko dute pasabidea. Dena ondo badoa, azpiegitura berria "irailean zehar" zabaltzea aurrei-

kusten dute, Igor Agirre alkateak adierazi duenez.

Auzotarrak eta abereak

Goitako, Gereako eta Longako auzotarrek horrela erabaki zutelako

egin dute gainera pasabide berria. 2018ko uztailean auzo batzarrera deitu zituzten hiru auzoetako herritarrek, eta hantxe hartu zuten erabakia. Orduan, udalak aukera bi ipini zituen mahai gainean: gainera pasabidea ala lur azpiko tunela. Bataren eta bestearen gaineko xehetasunak jaso ondoren, batzarrean batutako auzotarren gehiengoak gainera pasabidearen aldeko hautua egin zuen.

Ondoren, proiektua egin eta udalak Egoin enpresari esleitu

Proiektuak 550.000 euroko aurrekontua izan du eta Aldundiak 25.000 euro ipini ditu

zizkion lanak, 550.000 eurotan. Bizkaiko Foru Aldundiak 25.000 euro ipini ditu proiekturako.

Errepidea alde batetik bestera zeharkatzeko pasabidea hango inguruko auzotarren eskaera historikoa izan da. Izan ere, auzotarrek sarritan zeharkatu behar izaten zuten errepidea, edo autobus geltokira joateko edo errepidearen beste aldean dagoen tabernara joateko. Horrez gainera, abereen jabeek ertzainen laguntza behar izaten zuten errepidea geratu eta abereak beste aldera pasatzeko.

Ehizarako pase-lerroen zozketak egingo dituzte Mañarian eta Izurtzan

Eskariak egiteko epea zabalik dago, bai Mañariko Mugarra elkartearen bai Izurtzako San Iurgi elkartearen

MAÑARIA-IZURTZA • J.D.

Ehiza denboraldia hastera doa eta Mugarra eta San Iurgi elkarteek laster egingo dituzte ehizarako pase-lerroen zozketak. Mañariko Mugarra elkartearen kasuan, Saibigain-Iturriotz pase-lerroko postuak banatuko dituzte. Urriko

postuen zozketa orokorra irailaren 11n izango da, 20:00etan, udaletxeko batzar aretoan. Eskaerak egiteko azken eguna aurreko eguna da, irailaren 10a.

Azaroko eta abenduko baimeak irailaren 25ean zozkatuko dituzte eta eskaerak aurkezteko

azken eguna irailaren 24a da. Txartelak Errekondo jatetxean, Izurtzako Herriko Tabernan eta Antonio Txiki okindegian batu edo utzi daitezke; baita elkarteak herri bietan dituen buzoietan ere.

San Iurgiren zozketak

Izurtzako San Iurgi elkarteak Bitañon eta Mendiganen usoak eta birigarroak ehizatzeko dauden postuetarako baimenak zozkatuko ditu: urriko paseen zozketa irailaren 11n egingo dute eta urteko azken hile biei begirakoa irailaren 25ean. Txartelak Antonio Txiki okindegian eta Izurtzako gasolindegian jaso daitezke.

Otxandion ekin diote izen-emateari egur sortak egiteko

Interesatuta dauden herritarrek irailaren 14ra arteko epea izango dute euren eskabideak aurkezteko

OTXANDIO • J.D.

Otxandioko Udalak Korostondo inguruan duen baso bateko hainbat zuhaitz moztu egingo dituzte eta hor sortutako egurra aprobe-txatzeko aukera eskainiko diete herritarrei. Interesatuta dauden herritarrek irailaren 14ra arte dute epea eskabideak aurkezteko. Aprobe-txamendu baino eskari

gehiago badaude, esleipenak zozketa bitartez egingo dituzte. Egur sorten prezioa 20 euro da, ohar batean jakinarazi dutenez. Arbolak zenbaki batzuekin markatuko dituzte eta egur aprobe-txamendurako aukera duten herritarrek eurei egokitutako zenbakia duten zuhaitzen egurra eraman ahalko dute etxera.



ANDRAMARI
ZORNOTZAKO IKASTOLA

"Biharko Euskaldun prestatu eta arduratsuak hezten"

- * Euskal hezkuntza eredu berritzailea, hurbilekoa eta konprometitua.
- * Bertoko ekoizleen produktu eta sasoikoez hornitutako jantoki zerbitzua.
- * Bus: Usansolo, Igorre, Lemoa, Zornotza.

Bisita gidatuak eta informazio gehiago: ☎ 94 673 29 50 • zornotza@ikastola.eus • www.zornotzaikastola.eus



0-18 urtera arte

MATRIKULAZIO
EPEA ZABALIK

Irailaren 14ra arte parte hartu daiteke ANBOTOk argazki lehiaketan

Argazkiak anboto.org webgunean ipini behar dira

DURANGALDEA • M.Z.
Atera duzu argazkirik uda sa-soian? Ipin argazkiak ANBOTOk argazki lehiaketan eta irabazi sari zoragarriak. Lau sari egongo dira, bi Durangaldeko kategorian eta beste bi Durangaldetik kanpokoan.



Aitor Bilbaoren argazkiak sari bat irabazi zuen iaz.

Iurretako Kofradia Eguna bertan behera utzi dute

IURRETA • M.Z.
Iurretako kofradiek antolatzen duten urteroko ospakizuna bertan behera uztea erabaki dute. Iurretako kofradien Eguna iraileko bigarren domekan antolatzen dute, Laixiarren. Koronabirusaren eraginez hartu dute erabakia.



Jendetza batu izan da urtero Laixiarren.

Zabalik dago Amankomunazgoan diru-laguntzak eskatzeko epea

143.000 euroko diru-poltsa lau alorretara bideratuko dute

DURANGALDEA • A.B.
Aniztasun funtzionala duten pertsonen gizarteratzea sustatzeko, euskararen erabilera indartzeko, eta ekonomian eta enpleguan eragiteko diru-laguntzak bideratu ditu Amankomunazgoak. Baita kooperazioan eta kirolean lan egiteko ere. Guztira, 143.000 euroko diru-poltsa lotu du arlo horietan banatzeko. Laguntzak irailaren 18ra arte eskatu daitezke.

DURANGO • A.M.
Durangon kontzentrazioa egin dute asteon, koronabirusaren bigarren olatu honetan euskal presoek baldintzak gogortu dituztela salatzen. "Espetxeetako egoera okerrera egiten ari dela ikusi dugu, osasun baldintza minimoak ez dira betetzen ari, zigorrak geroago eta gogorragoak dira, eta egoera bera ere bai. Saretik hainbat eragile sozialekin batu gara, eta egoera salatzen premia handia dagoela ikusi genuen", esan dio ANBOTOr Miren Erdoiza Durangoko Sareko kideak.

Sarek eguaztenerako deitu zuen kontzentrazioan dozenaka lagunak parte hartu zuten. Erdoizaren berbetan, "osasun alerta osteko mobilizazioak arrakastatsuak izan dira eta agerikoa da badagoela kezka bat gizartean".

Beatriz Antxia senideak eta Erdoizak diotenez, koronabirusaren bigarren olatuak euskal presoek baldintzak "gogortu" ditu. "Otsailan joan ginen Oier bisitatzera azkeneko; bost hilabete bisitarik barik geratu gara. Horren ondoren, uztail amaieran eduki genuen lehenengoa, abuztuaren beste bat eduki dugu, eta irailean daukagu hurrengoa. Txarrena itxaronaldia da, urduritasun hori. Irailaren 18ra-ko aurrez aurrekoa dugu, baina ez dakigu zer gertatuko den. Izan ere, biseko batzuk bertan behera uzten

Euskal presoek baldintzak gogortu dituztela salatu dute dozenaka lagunak Durangon

ANBOTOk Miren Erdoiza Durangoko Sareko kideagaz eta Beatriz Antxia senideagaz berba egin du presoengururatu



Dozenaka lagun kontzentratu ziren eguaztenean Durangon.

ari dira", esan du Antxiak, Oier Andueza presoaren amak. Bestalde, hainbat kartzelatar "birusa sartu" dela jakinarazi diote elkarrizketatuek ANBOTOr. "Badakigu birusa hainbat kartzelatan sartu dela, baina ez dago interesik hori publiko egiteko", esan du Erdoizak. Antxiak kritikatu du presoek ez dutela segurtasunik, eta maskarak eurek eraman behar izan dizkietela.

Iritzia

Gazteluko lagunak Juantxuri:

Eguzkia goizero irteten den arren, batzuetan eguna lainotuta egoten da eta ezin dugu ikusi, baina beti dago. Sentipen horrekin geratu ginen zu joan ondoren, Juantxu. Betidanik, baserriko bizimodua eta aberenganako duzun maitasuna izan dira zure ezaugarriak. Ondare ederra uzten duzu, zure bi semeak, zure parekoak, erakutsi diezuna egiten jarraituko dutenak, zintzotasunez, umiltasunez eta maitasunez, maitasun handiz. Ezagutzen zaituzten guztiek dakite nolakoa izan zaren. Zure eguneroko irribarrea, aurpegian ezarria, gertatzen zena gertatzen zela, zu beti alai. Pertsona ona. Berdin zion norekin edo nola, baina beti irribarrea eta alaitasunezko hitzak oparitzen zizkiguna. Gaztelu hutsune handi batekin dago, zurekin bizitako zarataren, barreen eta une onen falta igarriko dugu. Gero arte, zauden tokian zaudela, beti gurekin sentituko zaitugu. Besarkadarik handiena jaso eta gurekin egongo zarela beti jakin.

Ibon Lasuen, Iban Urien, Karlos Areitio eta Esther Ugaldea, Gazteluko lagun danon partez



Zure iritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbideak:
Bixente Kapanaga 9, - IURRETA • Izen-abizenak • telefonoa • helbidea • Nortasun Agiriaren zenbakia **DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO** Alderdi, elkarte edo taldeko iritzia kide baten izenean sinatuta eta ANBOTOr irizpideen arabera zuzenduta publikatuko dira. Bidalitako testuak ezingo du 1.500 karaktere baino gehiago izan (tarteak barne).




Beheko berbak erabilta idatzi esaera zaharra.

Gela bi hauetan objektu batzuk berdina dira. Zeintzuk?







SUDOKUA

Bete itzazu beheko irudiekin
sudokuan hutsik dauden laukiak.




GURUTZEGRAMA

Bete gurutzegrama behean
dauden irudien laguntzagaz.




TXIKITIK HANDIRA

Ordenatu soka
laburrenetik luzeenera.




DOMINOA

Marraztu itzazu
falta diren irudiak
lauki zurietan.













LABIRINTOA

Zein bide hartuta helduko da eskolara?



ORIGAMI

Jarraitu pauso hauei paperezko itsasontzi bat egiteko.

1**2****3****4****5****6****7****8****9****10**



IURRETA *Tellitu-n*

3 logelatako 6 etxebizitza

2 logelatako 11 etxebizitza

Garajea eta trastelekua barne

ZARATE ELEXPE
E R A G I L E A K

Tel.: 946 816 673
www.zarateyelexpe.com

Sei hilabeteren ondoren, Durangoko San Agustin kulturgunekak berriro zabalduko ditu ateak, domekan

Irailean hiru ikuskizun eskainiko dituzte kulturgunean: Glu Glu-ren 'Marierrauskin' izango da lehenengoa; 'Safari' (irailak 20) eta 'Oymyakon' (irailak 26) dira beste biak



Marierrauskin.

ANTZERKIGINTZA • A.M.

Sei hilabetez itxita egon eta gero, Durangoko San Agustin kulturgunekak berriro zabalduko ditu atek. Glu Glu konpainiak martxoan eskaini beharreko *Marierrauskin* antzezlanak ikusi ahal da, irailaren 6an; 3tik 5 urtera biarteko haurrentzat gomendaturiko lana da. Beste ikuskizun bi ere eskainiko dira irailean. Hilaren 20an La Baldufa konpainiaren *Safari* haurrentzako ikuskizuna, eta irailaren 26an Khea Ziaterren *Oymyakon* ikuskizun intimista. "Kultura gure istorioak kontatzeko, ospatzeko, iragana gogoratzeko, entretenitzeko eta etorkizuna irudikatzen tresna baliotsua da", azaldu du Arantza Arrazola San Agustin kulturguneko ardura-dunak.

Irailean ikusi ahal da diren emanaldietariko bi martxoan eta

apirilean egitekoak ziren. Urtea amaitu bitarteko programazioa kontratatuta dagoela ere adierazi dute kulturgunetik. Urtea amaitu bitartean, hamabost ikuskizun eskainiko dituzte San Agustinen,

Urtea amaitu bitartean hamabost ikuskizun eskainiko dituzte San Agustin kulturgunean

Uda Kulturaz Blai zikloak herriarren artean izandako harreragaz pozik agertu dira

eta, guztira, 24 emanaldi egingo dituzte. "Osasun alarmagaitik momentuko ziurgabetasuna dela-eta,

programazioa hilerok aurkeztu eta argitaratuko da", azaldu dute. Ez da izango itzulerarako hartu duten neurri bakarra. Patioaren aforoa %60koa izango da, eta butakak zenbakituak izango dira: bateko, biko eta hiruko taldeetan erreserbatu ahal da.

"Erreferentziazkoa"

Durangoko Udala ere pozik agertu da Uda Kulturaz Blai zikloak izan duen harreragaz. "Udaletik oso apustu irmoa egin dugu kulturaren alde, beti ere modu seguru batean eskainiz eta osasun neurri guztiak betez. Udan Kulturaz Blai zikloagaz Durango erreferentzia kulturala bilakatu dugu inguruko herrietan, eta hala izaten jarraitzea gura dugu", azaldu dute Ane Abanzabalegi eta Jorge Varela arduradun politikoek.

42 emakumeren lanak biltzen dituen 'Sorginak' erakusketa ikusgai

Besteak beste, Goiuri Aldekoa-Otalora durangarraren lana ere egongo da ikusgai; barikuan inauguratu dute



Gaur inauguratu dute Sorginak.

ARTEA • A.M.

Gaurtik aurrera, 42 emakume artistaren lanak ikusgai egongo dira Durangoko Arte eta Historia museoan. Erakusketaren abiapuntua XV. eta XVIII. mendeen artean sorginkeria leporatuta emakumeen aurka eginiko sarraskiak eta horiek gaur egun eragindako ondorioak dira. "Feminitate tradizionalaren arketipoa apurtu gura izan zuten milaka emakumeri egindako jazarpenak, torturak eta heriotza salatzeko dituzten lanak biltzen ditu erakusketak. Alargunak, ezkongabeak, sendatzaileak, emaginak eta abar izan ziren gizatasunik barik utzi zituztenak; gure iraganagaz eta orainaldiagaz aurrez aurre ipiniko gaitu", azaldu dute museotik.

EnPoderArte AIMA elkarteak antolatutako erakusketa; 2014tik hona hainbat erakusketa egin

ditu emakume artisten lanei ikusgarritasuna emanez.

Bisita gidatuak

Museoan egin ohi den legez, bisita gidatuak egingo dituzte artisten

Goiuri Aldekoa-Otalora durangarrak bisita gidatua eskainiko du irailaren 11n, euskaraz

ikuspuntuan sakontzeko. Lehenengoa irailaren 11n izango da eta Goiuri Aldekoa-Otalorak durangarrak eskainiko du. Irailaren 19an Cristina Gutierrez Meursek eskainiko du bisita gidatua, eta 26an *Gure beste sorginak* berbalak eskainiko du Gutierrezek. Bisita gidatuetan edo hitzaldian parte hartzeko, izena eman behar da. Erakusketa urriaren 4ra arte egongo da ikusgai.

BIBLIOTEKAREN IREKIERA

Maiatzaren 25etik aurrera



1 ITZULKETAK BUZOIAN



2 BIBLIOTEKARA SARRERARIK EZ

Momentuz ez da sarrera librerik egongo. Maileguak aldez aurretik eskatu beharko dira eta kultur etxeko ateak jasoko dira.



3 MAILEGUEN ESKAERA

Maileguak telefonoz, Whatsapp-ez, emailaz edota online katalogoa erabiliz eskatuko ahal izango dira.

4 JASOTZEKO ORDUTEGIA

Goizez (Astelehenetik ostiralera)
10:00 - 13:00
Arratsaldean (Asteartea eta osteguna)
17:00 - 19:00

5 SEGURTASUN NEURRIAK

Eskarretako materiala higiegi neurriak jarraituz entregatuko dugu

94 681 27 26 688 863 736 biblioteca@iurreta.eus



DURANGALDEKO ALBISTEAK JASOTZEKO BIDE BERRIAK



Whatsapp bidez
Bidali 'ALTA' 688 635 041
zenbakira whatsapp
bidezko mezua bidalita

Telegram bidez
Bilatzailearen bidez
'ANBOTO' kontua
topatu eta
jarraitzen hasi



Anboto
Komunikabideak

@anboto

@anbotokomunikabideak



ANBOTOREN LAGUNAK

Euskarazko hedabideok mundua ikusteko modu propioa dugu, euskaratik eta euskaraz.

Orain, gure komunitatearen konpromisoa inoiz baino beharrezkoagoa dugu aurrera egiteko, euskarazko eta kalitatezko kazetaritza egiten jarraitu ahal izateko. Izan ere, bizi dugun egoera ekonomikoagaz **ANBOTO**ren jarduna kinka larrian dago.

Jarri ezazu zure alea euskarazko informazioa sortzen eta garatzen jarraitu dezagun, Durangaldea ezagutzen, bertan gertatzen denaren berri ematen eta gure ikuskera zabaltzen jarraitu dezagun.

ANBOTOren laguna izan gura duzu?

Urtean **30 euro** ordainduta, **ANBOTO** komunikazio proiektuari sostengua emango diozu.

Bidali mezua: anboto@anboto.org

Deitu: 94 681 65 58

Bete formularioa: www.anboto.org



Aurtengo Eleizetan kontzertuak irailean egingo dituzte Zornotzan

Eleizetan kontzertu sorta maiatzan egin ohi da, baina koronabirusaren eraginez aurtengo edizioa atzeratu egin da; zazpi kontzertuk osatzen dute ziklo berria



Ali Boulo Santo.

MUSIKA • A.M.

Balen Lopez de Muniainek eta Paola Zannonik emango diote hasiera Eleizetan kontzertu zikloari, domekan. Aurtengoa edizio berezia izango da, izan ere, maiatzan egin beharrean irailean egin beharko da. Domekako emanaldiaz gainera, beste sei kontzertu egingo dira iraileko zapatu-domeketan. Englar (irailak 12), Ali Boulo Santo (irailak 13), Musbika Ensemble (irailak 19), Beñat Egiarte, Olatz Saitua eta Elena Cadierno (irailak 20), Maria Berasarte (irailak 26), eta Maria Luzuriagak eta James Findlay-k osaturiko bikotea (irailak 27) izango dira aurtengo karteileko abeslari eta musikariak.

Sarrerak gonbidapen bidez

Aurreko edizioetan legez, kontzertuetarako sarrera doakoa izango da. Aurten, baina, gonbidapenak aurretiaz eskuratu beharko dira, koronabirusaren eraginez kopurua mugatua izango da eta. Maskara erabiltzea derrigorrezkoa izango da.

Berbarok Labur Esanda film laburren lehiaketa antolatu du irailaren 11 eta 12rako

ZINEMAGINTZA • A.M.

Irailaren 11tik 12ra bitartean, Labur Esanda film labur lehiaketa egingo da Durangon, Berbarok elkarrekin antolatuta. Parte-hartzaileek 24 ordu edukiko dituzte bideo bat grabatu eta editatzeko. Lehiakideei gai bat, esaldi bat eta objektu bat emango dizkiete, eta horiek erabili beharko dituzte filma osatzeko. 500 euro banatuko dituzte saritan.

Berbarok helbide elektroniko bat eman du parte-hartzaileek izena eman dezaten (laburesanda@berbaro.eus).



Parte-hartzaileen lanak Plateruenean ikusiko dira.

Gai librean

Zerbait ikasi

Adela Cortina filosofoak esana: "Honetatik zerbait ez ikastekotan, jai dugu". Turismoak, ostalariek, gazteek, egoitzen kudeatzaileek, aisialdi programatzaileek, soinu teknikariek, kazetariek, gurasoek, eskoletako kurikulum egileek, ... Sektore asko aipatzen dira sasoi honetan eraldatzeko beharretan direnez aritzean.

Bazterrik bazter hitz bera: ikasi. Nor da eraldaketarako unibertsitateko irakaslea, ordea? Galdera horren erantzunak arduradun bat edo beste ipiniko du jopuntuan. Maizegi, nire ustetan, entzuten ditugu hitzok gure ezbeharren jatorri gisa: gobernuak, legeak, arauak, epaia, nazioarteko ekonomia, kapitalismoa, mundu globalizatua, ... Potoloetan potoloenak. Arduradunetako nuke zenbateraino ez ote diren kontzientzia lasaigarrietan lasaigarrienak ere.

Adela Cortina filosofoak esana: "Honetatik zerbait ez ikastekotan, jai dugu"

Eskarmentua. Gaztelania ere buruan dugunok, bi kontzeptu lotzen ditugu hitzarekin batera

Gizarte eraldaketarako ateak ixten dizkietenak, behintzat, norbanakoaren ekimenari.

Beste hitz bat. Ederra honakoa. Eskarmentua. Gaztelania ere buruan dugunok, bi kontzeptu lotzen ditugu hitzarekin batera datorkigun



Josune Aranguren Zatika
Filosofa

esanahian. Horrexetan bere edertasuna. Horrela ulertzen dut Adela Cortinaren esaldia.

Eskarmentuak, ordea, gizartekoa eta norbanakoa ere badenez, eraldaketarako beharra geure sentiarazten digu. Etxealdian batak elikadura hobetu duela, besteak jarduera fisikoan tematiago jokatu duela, hau umeekiko tarte gehiago bilatzekotan da eta hark kultura kontsumitzeko bide berriak topatu ditu.

Irakaslerik onena aukeratu dugu. Norbera. Eskarmentua. Bi esanahiak bat eginda. Berak eman dizkigu bai diagnosis eta baita erremedioa ere. Gizartearen antolaketa dela-eta, gogora datorkit Rousseauren kontratu soziala. Frantzia iraultzaren ateetan zegoela, imajinatzen ditut herritarrak estatu araugilearen beharraz eta norbanakoen askatasunaren garapenez ezbaitadutzen. Kontratu soziala alde guztien erantzukizunak batzeko eta gizakiaren eta gizartearen eskubideak garatzeko tresna hipotetikoak despotismora eramane gaitzake edo Liberté, Egalité eta Fraternité-ra.

<http://josunearanguren.blogspot.com>

Durango erosi eta ingurumena zaindu

Bertako +, kalte ekologiko -

Lortu erosketa-sorta bat!

Entrega-puntuak

Madalena plaza:
Irailaren 10ean eta irailaren 24an
10:00 - 13:00 / 17:00 - 20:00

Ezkurdi plaza:
Irailaren 17an eta urriaren 1ean
10:00 - 13:00 / 17:00 - 20:00

*500 pack banatuko dira egun bakoitzeko.

Kanpainaren oinarriak:
Kanpainaren helburua da erosketa-sorta bakoitzeko 30% gaitzake (bertako produktuak, gaitzakeak eta eraldaketa-sortak) bakoitzeko. Kanpainaren helburua da bertako produktuak erosi eta ingurumena zaindu. Kanpainaren helburua da bertako produktuak erosi eta ingurumena zaindu. Kanpainaren helburua da bertako produktuak erosi eta ingurumena zaindu.

Informazio gehiago: www.dendakbai.eus

DURANGO

guk

merkataritza gida sarean

anboto.org/gida

Ezagutu eta erabili Durangaldeko merkataritza gida euskaraz eta sarean!

Merkataritza gidan parte hartzeko deitu: 946 217 902

Argazkiak - Datuak - Kokapena
(urtean 50€)



Mikel Goiria Vazquez
Amorebieta futbol
klubeko atezaina
Zornotza | 1999

“Eskola zaharreko atezaina naiz. Ate ondoan egotea gustatzen zait eta hara datorrena gelditzea”

Mikel Goiria atezainak lehenengo taldeko fitxa izango du aurten, eta Bigarren B Mailan arituko da. Umetako ametsa errealtate bihurtu zaio etxeko taldean goi-goiraino helduta. Taldean toki bat egiteko gogor entrenatuko dela dio

FUTBOLA • JOSEBA DERTEANO

Nork esango zion Zornotzako Karmengo Ama ikastetxean futboleak hasi zen umeari egunen batean talde nagusira helduko zela.

Egia esanda, amets bat da eta pozarren nago. Ahal dudan dena egingo dut nigan ipini duten konfiantza nire errendimenduagaz bueltatzeko. **Dena dela, lehenengo taldea eta euren dinamika ez dira arrotzak zuretzat.** Ez, eurekin entrenatzen ibili naiz. Orain urte bi, astean entrenamendu bi egiten nituen lehenengo taldeagaz, eta iaz hiru. Nagusiekin entrenatu eta bigarren taldeagaz jokatu izan dut.

Erdibidean egote horrek zer abantaila eta zer desabantaila ditu?

Aste osoa jokalaria batzuekin entrenatzen ibili ondoren partiduak

beste batzuekin jokatzea apur bat arraroa da. Baina zortea izan dut, jokariak ezagutzen nituelako. Beharbada gogorragoa edo arraragoa izango litzateke herrikoa ez den eta jokariak ezagutzen ez dituen norbaitentzat. Alde horretatik, zortea izan dut. Errazagoa izan da. Talde nagusian atezainei bideratutako entrenamendu espezifiko gehiago daude eta lan intentsoagoa

“

Amets bat da eta pozarren nago. Nigan ipinitako konfiantza errendimenduagaz bueltatzen ahaleginduko naiz”

egiten da arlo horretan, eta igarri egiten da. Horixe da abantailarik handiena.

Gaur egungo futboleak garrantzi handia hartu du hankako jokoak. Zelan daramazu alderdi hori?

Gehien kostatzen zaidan alderdia da. Hain zuzen, orain horixe lantzen ari naiz entrenamenduetan. Gehiago naiz eskola zaharreko atezaina. Atearen ondoan egotea gustatzen zait eta hara datorrena gelditzea.

Mikel Saizar izango duzu ondoan: 37 urte, Kordoba taldeagaz lehenengo mailan ibilitakoa, esperientzia handikoa... gazte batentzat ofizioa ikasteko taldekide aproposa dirudi.

Bai, horrela da. Ikustekoa da partiduetan zelako segurtasunagaz eta lasaitasunagaz gidatzen duen taldea. Oso hartu-eman ona dut beragaz, eta aholkuak ematen dizkit. Jakintza hori oso baliotsua zait eta, alde horretatik, zortea dut. Berarengandik ikasten saiatuko naiz.

Zer helburu duzu lehenengo denboraldiari begira? Zer lortuta egongo zinateke pozik?

Partidu ofizial batean debutatzea gura nuke. Hortik aurrera, ikasten jarraitzea dut helburu eta partidu bat baino gehiago jokatzeke aukera badut, oraindino hobeto!

Aurtengo denboraldi-aurrea berezia da hile askoan egon zaretelako zelaietatik kanpora. Zelakoa izan da itzulera?

Aste bi daramatzagu. Azken hiletan neure kabuz ibili naiz kirola

egiten: mendian, bizikletan... Hala ere, igartzen da itzulera, entrenamenduak guztiz desberdinak direlako, mugimenduak eta abar.

Baduzu lesionatzeko beldurrik?

Ez nau bereziki kezkatzen. Sekula ere ez dut lesio larririk izan. Kezka baino gehiago, gogoia izan dut, entrenamenduetara itzultzeko gogoia. Berez, abuztuaren 6an hasi behar genuen denboraldi-aurrea, baina gauzak ez zeuden garbi oraindino, protokoloak eta abar, eta atzeratu egin zuten. Beraz, desiratzen nengoen bueltatzeko.

Eta zelan daramatzazue protokolo neurriak?

Ondo. Lehenengo, nork bere etxean tenperatura hartu behar du. Denok maskaragaz sartzen gara zelaira, eta han berriro hartzen digute tenperatura. Jokariok aldagela bitan banatzen gara, elkarren artean leku gehiago egon dadin. Entrenamendua hasterakoan kentzen dugu maskara. Amaitzean, desinfektatu egiten ditugu baloiak, eta bakoitzak bere ur botila du.

Gazteen taldeagaz estatuko maila nagusira igo zinen orain hiru

“

Oso hartu-eman ona dut Mikel Saizarregaz. Aholkuak ematen dizkit eta jakintza hori oso baliotsua zait”

bat urte. Hori da zure ibilbideko unerik onena?

Oso polita izan zen, aurreikuspen denak apurtu genituen eta. Gure helburua mailari eustea zen! Aurreko denboraldian taldeak azkenengo partiduan lortu zuen mailari eustea. Gainera, denboraldia porrot batez hasi genuen. Hori ikusita, denek esaten duten "ea mailari eustea lortzen duten". Baina partidu bat irabazi eta gero bolada on bat hartu genuen eta goian kokatu ginen. Ezustekoa izan zen, bai.

Orain futboleak zentratu zara, baina urte askoan pilotaria ere izan zinen.

Bai, 18 urtera arte kirol bietan ibili nintzen. Orduan futboleak zentratzea erabaki nuen, pilotan baino aukera gehiago ikusten nitzkiolako neure buruari.

Zeintzuk dira zure pilotaririk gustukoak?

Aimar Olaizola zalea izan naiz beti. Iñaki Iza ere animatu dut, herrikoa zelako. Orain nire kuadrillako bat profesionalean dabil: Oier Etxebarria. Bere partiduak ikustera eta animatzera joaten gara.

Eta atezainetan?

Gorka Iraizoz eta Dani Aranzubia. Gaur egun, Jan Oblak.

Joan zen astean Jon Morcillo eta Oier Luengo zornotzarrek Athletic egaz debutatu zuten. Ezagutzen dituzu?

Bai, eta asko poztzen naiz eurengatik. Jon Morcillo nire klasean ibili zen urtebetean, Zornotzako institutuan. Luengo Amorebieta klubetik ezagutzen dut.



Iaz, Araskik irabazi zuen kopa.

Emakumezkoen Euskal Kopako finalak zaleen berotasuna izango du

Denboraldiko lehenengo txapelketako finala zapatuan jokatu da, Landakon, 12:00etan

SASKIBALOA • ARITZ MALDONADO

Sei hilabeteren ondoren, berriro baloia saskiratzen hasi ziren atzo Landakoko kantzian. Denboraldiko lehenengo txapelketa ofiziala hasi zen egunean: Emakumezkoen Euskal Kopa. IDK Euskotren, Lointek Gernika, Kutxabank Araski eta Tarbes Gespe Bigorre taldeak dabilten denboraldiko lehenengo titulua lortzeko. Emakumezkoen Endesa Ligako hiru taldeez gainera, aurtan Tarbes talde frantziarra ere lehiatuko da kopan, lehenengoz. Eguenean jokatu ziren finalaurrekoak, atzo: IDK-Araski eta Lointek Gernika-Tarbes.

Finala zapatuan jokatu da, 12:00etan. Finalistek zaleen berotasuna edukiko dute kopa etxera eramateko lehian. Izan ere, 291 zalek partiduaz gozatzeko aukera

izango dute. Horretarako, Euskal Saskibaloia Federazioak, Tabirako saskibaloia taldeak eta Durangoko Udalak segurtasun neurri zorrotzak hartu dituzte. Guztira, 350 lagun egongo dira eraikinean; hau da, aforoaren %60.

"Udalaren aurrerapausoa"

German Monge Euskal Saskibaloia Federazioko presidentea pozik agertu zen denboraldiari hasiera emango dion txapelketako finala publikoagaz jokatu delako. "Segurtasun neurriak hartuta, saskibaloia publikoagaz ikusi daitekeela erakutsiko dugu. Durangoko Udalak aitzindaria izan dela uste dugu horrelako ekimen bati ateak zabaltzen. Guretzat garrantzitsua da, horrela beste udal batzuek ere bide berberari jarraitu diezaiokete

eta", esan zuen. Ima Garrastatxu Durangoko alkatearen esanetan, "ohorea eta erronka bat" da txapelketa Durangon jokatzeko.

Finalerako sarrerak federazioaren webgunean hartu daitezke, agortzen diren arte.

Antolatzaileek 291 sarrera eskainiko dituzte zaleek finala bertatik bertara ikusi dezaten

IDK - Araski eta Lointek Gernika - Tarbes finalaurrekoen irabazleak lehiatuko dira zapatuan



Tabirakok, ESF-k eta Durangoko Udalak antolatu dute kopa.

hitz

artekalea 23, durango
946 810 776
info@hitzliburudenda.com

liburudenda

1^o MIÑAN
Amets Arzallus & Ibrahima Balde (Susa)

2^o AITAREN ETXEA
Karmele Jaio (Elkar)

3^o ENE BAITAN BIZI DA
Maddi Ane Txoperena (Elkar)

4^o GILLES DE RAIS
Anjel Lertxundi (Alberdania)

5^o FUNANBULISTAREN BELDURRA
Karlos Gorriñdo (Erein)

#salduenak

Eskuerak WhatsApp-ez eskatu ☎ 686 214 964, % Bizum-ez ordaindu eta etxean jaso

CERAMICAS

MACOBER

ZERAMIKA ETA GRESA
DEKORAZIOA ETA APAINKETA
ERAIKUNTZAKO MATERIALA

1300 m² BILTEGI - 800 m² ERAKUSKETA *Etorri eta ikusi*

Eitua indust., 65 BERRIZ - Tel.: 946 827 890 www.macober.com

FUTBOLA • J.D.

Ustaritz Aldekoa-Otalora, Eneko Boveda, Fernando Amorebieta, Jon Aurtenetxe, Ander Iturraspe... Sasoi batean, Durangaldeko jokalariek ohikoak ziren Athleticen ha maikakoan. Klubeko hainbat une gogoangarritako protagonistak izan ziren. 2012ko Europa Leagueko finala gogoratu besterik ez dago: Iturraspe abadiñarra eta Aurtenetxe zornotzarra titular aritu ziren Bucaresten. Harrezkero, eskualdeko jokalariek kopurua gutxituz joan da, gaur egun talde nagusian bat bera ere ez egotera. Baina ematen du behetik ate joka datorren lehoikumeen labekadak buelta eman diezaiokeela egoera horri. Joan zen asteburuan, denboraldi berriko lehenengo lagunartekoan, Durangaldeko lau jokalariek gazte lehenengoz jokatu zuten talde nagusiagaz.

Jon Sillero, beteranoena

Jon Sillero da lauretatik beteranoena Lezaman. 22 urteko durangarra kimu adina zuenean fitxatu zuten, Durangoko Nevers Ikastetxeko taldeetik. Orain arte 96 partidu jokatu ditu harrobiko taldeagaz, eta iaz kapitain jardun zuen, taldean duen pisuaren erakusgarri. Zentral edo eskuin lateral postuetan jokatzen du normalean. Iaz lehenengo taldeko deialdi batean sartu zuten, baina ez zuen debutatu Valladoliden kontrako partidu hartan.

Oier Luengoren jauzia

Oier Luengo defentsa zornotzarrrak ere 22 urte ditu, baina denbora gutxiago darama Athleticen:

Durangaldeko futbolariek labekada berria Athleticen talde nagusitik geroago eta gertuago

Jon Sillero eta Ewan Urain durangarrek eta Oier Luengo eta Jon Morcillo zornotzarrek lehenengo taldeagaz debutatu zuten joan zen asteburuan, Logroñesen kontrako lagunartekoan. Lau jokalariek bigarren zati osoa jokatu zuten



Goitik eta ezkerretik hasita: Jon Sillero, Oier Luengo, Jon Morcillo eta Ewan Urain. ATHLETIC CLUB

Jon Morcillo, debutean onena

Guztira, zortzi jokalariek debutatu zuten talde nagusiagaz Logroñesen kontrako lagunartekoan, eta euren artean Jon Morcillo izan zen distirarik gehien egin zuenatarikoa. Ezker hegaletik min egin zuen eta erdiraketa arriskutsuak egin zituen aurkariaren area inguruan. 21 urteko zornotzarra 2016-2017 denboraldian fitxatu zuten Athleticetik, Durangoko Kulturaletik. Baskonian eman zituen lehenengo urratsak, Athleticetik lankidetzak akordioa duen Basauriko klubean. Iaz 29 partidu jokatu eta 10 gol sartu zituen Bilbao Athleticetik. Errendimendua on horri eskerrak kontratua berritu zuten klubagaz, 2023. urtera arte.

Urain, lesiotik bueltan

Ewan Urain durangarra lau debutarrietan gazteena da, 20 urteagaz. Kadete adina zuenean fitxatu zuten, Kulturaletik. Aurrelari jokatzen du eta orain urte bi 13 gol sartu zituen Baskoniagaz. Iaz ere bikain hasi zen, sei partidutan hiru gol sartuta, baina belauneko lesio larri batek bere garapena eten zuen hile askotan. Jokalariek garaia da (1,92 metro) eta indartsua goitik, baina beste dohain batzuk ere baditu. Badaki baloia maneiatzen eta baita zentralen artean espazioak bilatzen ere.

2018-2019 denboraldian fitxatu zuten, Amorebieta klubetik. Bilbao Athleticetik partidu bi jokatu eta berriro itzuli zen etxeko taldera,

utzita. Iaz, bigarren ahaleginean Joseba Etxeberriaren aginduetara, harrobiko taldean finkatzea lortu zuten 23 partidu jokatuta. Sarri-

tan, Sillerok eta biek osatu zuten defentsa lerroa. Gainera, hiru gol sartu zituen, eurretari bat Badajozen kontrako igoera fasean.

Asier Aspuru abadiñarra da Ipar Euskal Herriko bigarren mailako txapelketako irabazlea

Abuztuaren 23an garaipena lortu zuen trinketean; datorren urtean aukera du lehenengo mailan jokatzeko

TRINKETEA • EKAITZ HERRERA

Asier Aspuru da Ipar Euskal Herriko bigarren mailako txapelkun berria trinketean. Pilotari abadiñarrak txapelketako finala irabazi zuen abuztuaren 23an Donibane Garazin (Nafarroa Beherea). Aspuru 40-19 irabazi zion Amikuze eskualdeko Florian Mendiburu pilotariari. Aspuru partidu hasieratik markatu zuen lehiaren pultsua, eta gainetik aritu zen partidua amaitu arte.

Finala irabazitakoan, Aspuru Kepa Arroitauregi iurretarra go-

Finala irabazitakoan, Aspuru Kepa Arroitauregi iurretarra gogoan izan zuen

goan izan zuen. Arroitauregi maiatzean hil zen. Aspuru haren omenezko kamiseta bat erakutsi zuen. Izan ere, pilotariak beti aitortu izan du Kepa Arroitauregi ezinbesteko bidelaguna izan duela bere kirol ibilbidean.



Txapelketako finala Donibane Garazin (Nafarroa Beherea) jokatu zen.

DURANGALDE



Mugarrikolandatik gora

Mugarrikolandatik Durangaldeko ikus-pegirik zoragarrienetariko bat dago. Argazki honetan, Mugarra mendiaren alde bat ikusten da. Bidegurutze honetatik hainbat lekutara joan daiteke: Mugarra-ren tontorrera, Leunganera, Iurretara, Zornotzara...

KO TXOKOAK ?



Etxaburu dorrea

Dorre errektangular hau Sancho Lopez de Ibargoienek eta bere emazte Estibaliz de Etxaburuk eraiki zuten XVI. mendean. Durangotik Urkiolara doan errepidetik gertu dago Etxaburu dorrea, Izurtzan. Harkaitz baten gainean kokatuta dago.



ETXETXO
G. INMOBILIARIA
F.J. Zumarraga, 11 - 946 814 049 • DURANGO
www.inmoetxetxo.com



AMBOTO
INMOBILIARIA
Sanagustinalde, 4 - 1 ez. • 48200 DURANGO



Inmobiliaria del Duranguesado
Askatasun etorb. 10 • DURANGO • 946 816 666
www.inmoduranguesado.com
inmoduranguesado@gmail.com



AGENCIA INMOBILIARIA
Fernando Uribe
Barrenkalea, 15 behe • DURANGO
Tel.: 946 816 423 • www.fernandouribe.es



ATXONDO
3 logela
2 komun
ATXONDO: 3 logela, komuna, egongela eta 2 terraza. Kalera ematen duen garajea, egokia kotxea sartzeko edo txokoa egiteko. CEE= F
130.000€



DURANGO
3 logela
2 komun
SAN INAZIO: 3 logela, 2 komun, sukaldea, eskegitokia eta egongela. Terraza. Ganbara eta garajea. C.E.E = F
245.000€



DURANGO
4 logela
2 komun
SASIKOA: 4 logela, 2 komun, sukaldea eta egongela. Terraza. Ganbara eta garajea. C.E.E= E.
185.000€



DURANGO
3 logela
MIKELDI: Etxebizitza altua. 3 logela, komunak, sukaldea eta egongela. Igogailua. CEE= E
170.000€



MATIENA
3 logela
MATIENA: 3 logela, komuna, sukalde handia eta egongela. Terraza. Garajea aukeran. CEE= E Alokairuan, erosteko aukeragaz.
600€ - 180.000€



IURRETA
2 logela
IURRETA: Alokairuan, erosteko aukeragaz. 2 logela, komuna, sukalde-jangela eta egongela. Terraza. Bizitzen sartzeko moduan. Eguzkitsua. C.E.E.= F
115.000€

//ETXEBIZITZAK SALGAI

DURANGO: Muruetatorre. Eguzkitsua. Ikuspegi ederrekin. 3 logela (gela nagusia balkoiagaz), 2 komun, sukaldea balkoiagaz eta egongela. Garajea eta ganbara.

DURANGO: Askatasun Etorbidea. Etxebizitza ederra. 135m2. 4 logela, 2 komun, sukaldea eskegitokiagaz eta egongela. Garajea eta ganbara. Argitsua.

DURANGO: Askatasun Etorbidea. Berriztatua. 3 logela, 2 komun eta sukalde-egongela. Balkoia.

DURANGO: eraiki berria. 3 logelako duplexa. Azken etxebizitza salgai. 200.000 €.

DURANGO: Jose Miel Barandiaran. Etxebizitza ederra. 3 logela, 2 komun, sukaldea eta egongela. Garajea eta trastelekua. Durango erdian.

DURANGO: Komentukalea. 3 logela, komuna, sukaldea eta egongela. Ganbara. Ikuspegi ederrak.

DURANGO: Hegoalde kalea. Eraikin txikia. 4 logela, 4 komun, txokoa, terraza eta lorategia. Ezin hobea.

ABADIÑO: Torresolo kalean: 3 logelako etxebizitza ederra. Guztiz berriztatua. Eguzkitsua. Etxe osoak kanpora ematen du.

BERRIZ: Elizondo etxetalea: Pisu guztiz eguzkitsua. Egongela, jangela, sukaldea, 2 komun eta 3 logela. Garaje itxia aukeran.

BERRIZ: 3 logela, komuna eta egongela. Ganbara. Eguzkitsua. Merkea.

ATXONDO: 2 logela, komuna, sukaldea eskegitokiagaz, despentsa eta egongela.

//LURSAILAK SALGAI

DURANGO: 2.360 m2-ko lursaila. Durangotik oso gertu. Zarratua eta zuhaitzekin. Eskaintza paregabea.

GAZTELUA: 10.000 m2-ko lursaila. Nekazaritza-lurra. Leku onean. Egokia.

ABADIÑO: 1.000 m2-ko lursaila salgai. Bi bizitzako etxea eraikitze baimenagaz. Zonalde egokia.

IURRETA: 5 hektarea inguruko lursaila. Abeletxe bat egiteko aukeragaz. Sarbide ona.

ABADIÑO: Bi bizitzako etxea eraikitze baimenagaz. 1.000m2. Informazio pertsonalizatua.

AMOREBIETA. EUBA: Bi bizitzako etxea eraikitze baimenagaz. 3.000 m2.

//BASERRIAK ETA TXALETAK SALGAI

MAÑARIA: 3 solairuko etxe ederra. Herri erdian. Udaletxe ondoan. 160 m2 solairu bakoitzean. Aukera ederra Mañaria erdian bizitzeko.

MAÑARIA: Baserria salgai. Herrian bertan. 3.000 m2-ko lursaila. Bizitzera sartzeko moduan. Oso polita.

ELORRIO: Aldape auzoa. Baserria berriztatzeko. 3 hektareako lursaila. Prezioa: 115.000 €

MENDATA: Lamikiz auzunea. Bi bizitzako baserria. Berriztatzeko. Eguzkitsua. Prezio interesgarria.

DURANGO: Eraikin txiki ederra, izkinakoa. Guztiz jantzita. Estreinatze baimenagaz.

//BULEGOAK ALOKAIRUAN

ABADIÑO: 40 m2-tik gorako bulegoak. 350 €-tik hasita.

//GARAJE ITXIAK SALGAI

Durango, garaje itxiak salgai 25.000 €-tik aurrera.

//LOKALAK ALOKAIRUAN

Alde Zaharrean, hainbat tamainatako lokalak alokairuan. Etorri eta galdetu.

//LOKAL INDUSTRIALA SALGAI

MATIENA: 460 m2-ko lokala salgai. Bulegoa, komuna eta aldagela. Oso egokia.

www.inmoduranguesado.com



DURANGO
4 logela
133 m²
EZKURDI. Halla, egongela, sukaldea, 4 logela eta 2 komun. 2 balkoi. Argitsua. Aukera askogaz. Igogailua. C.E.E: E. Garaje itxia + 35.000€ garajeagaz + 26.000 €.
330.000€



DURANGO
4 logela
95 m²
TRONPERRI: Egongela, sukalde jantzia, despentsa, 4 logela eta 2 komun. Argitsua. Garajea eta ganbara. Igogailua. Terraza handia eta txokoa komunitarioak. C.E.E:E.
258.000€



DURANGO
2 logela
71 m²
ASKATASUN ETORBIDEA: Egongela, sukalde jantzia, 2 komun eta 2 logela. 2,13 m²ko balkoia. Eguzkitsua. Garajea eta 6 m²ko ganbara. Igogailua. C.E.E:E.
228.000€



MATIENA
3 logela
88,5 m²
MATIENA: Halla, 3 logela, sukalde jantzia eta 2 komun. Balkoia. Etxe osoak kanpora ematen du. Igogailua. 8 m²-ko ganbara. Garajea. Alokairuan erosteko aukeragaz. C.E.E marixan
225.000€



IURRETA
3 logela
77,5 m²
Bixente Kapanaga: 77,58 m2. 3 logela, egongela, sukalde jantzia, eskegitokia eta komuna. Egoera onean. Igogailua. C.E.E:E.
174.500€



MATIENA
3 logela
83 m²
Trañabarren hiribidea: 3 logela, egongela handia, sukalde jantzia eta 2 komun. Balkoia. Ganbara handia. Igogailua. C.E.E: G: Garajea aukeran + 10.000 €.
172.000€

//DURANGO

AMBROSIO MEABE: 2 logela, sukaldea, egongela, bainugela, balkoia, igogailua, ganbara eta garaje itxia. **205.000 € / E.E.Z=E**

ASKATASUN ETORBIDEA: 2 logela, sukaldea, egongela eta 2 komun. Ganbara. Garajea. Igogailua. LEHEN 237.500 € / ORAIN **228.000 € / E.E.Z=E**

ERRETENTXU: 3 logela, sukaldea, egongela, bainugela, balkoia eta igogailua. **190.000 € / E.E.Z=E** Garaje itxia aukeran.

FRAY JUAN DE ZUMARRAGA: 3 logela, sukaldea, egongela, bulegoa eta komuna. Igogailua. **220.000 € / E.E.Z=E**

SANTIKURUTZ KALEA: Bi bizitzako etxea eraikitze baimenagaz 600m2-ko lurzorua. **640.000 €**

SASIKOA: 3 logela, sukaldea, egongela eta 2 komun. Terraza. Igogailua. Garajea eta ganbara. **270.000 € / E.E.Z= E**

TXATXIENA: 4 logela, sukaldea, egongela eta 2 komun. 2 balkoi. Garajea eta trastelekua. LEHEN 390.000 € / ORAIN **375.000 € / E.E.Z=E**

//ABADIÑO

ZELETABE: 3 logela, egongela, sukaldea eta 3 komun. Terraza. Garajea eta trastelekua. LEHEN 342.576 € / ORAIN **278.000 € / E.E.Z=E**

URKIOLA AUZO: 3 logela, sukalde-egongela-jangela eta 5 komun. Ganbara. Garajea. Lursailagaz. **285.000 € / E.E.Z=E**

//BERRIZ

BERRIZBEITIA KALEA: 2 logela, sukaldea, egongela, bainugela eta balkoia. **120.000 € / E.E.Z=F**

ERROTATXO KALEA: 2 logela, sukaldea, egongela eta komuna. Balkoia. LEHEN 95.000 € / ORAIN **85.000 € / E.E.Z =E**

ERROTATXO KALEA: 2 logela, sukaldea balkoiagaz, egongela eta komuna. **100.000 € / E.E.Z=G**

LEARRETA MARKINA: 2 logela, egongela, sukaldea eta komuna. Balkoia. **102.000 € / E.E.Z=E**

MURGOITIO KALEA: Etxebizitza bitan banatutako baserria lursailagaz. **290.000 €.**

//IURRETA

AMILBURU MUSIKARIEN PLAZA: 3 logela, sukaldea, egongela eta 2 komun. Terraza. Igogailua. Ganbara eta garajea. LEHEN 276.000 € / ORAIN **265.000 € E.E.Z=E**

//MAÑARIA

ARRUETA AUZO: Berreraikitze baimenagaz lursailagaz. **220.000 €.**

//MATIENA

TXINURRISOLO: 3 logela, sukaldea, egongela balkoiagaz, bainugela eta igogailua. LEHEN 200.000 € / ORAIN **168.000 € / E.E.Z=F**

TRAÑABARREN: 3 logela, sukaldea, despentsa, egongela eta bainugela. 2 balkoi. Igogailua. Ganbara eta garajea. LEHEN 220.000 € / ORAIN **210.000 € /E.E.Z =E**

//OTXANDIO

ELIZABARRI: 3 logela, sukaldea, egongela, bainugela, balkoia eta lonja **106.000 € / E.E.Z=F**

//ZORNOTZA

SAN PEDRO KALEA: 3 logela, sukaldea, egongela balkoiagaz eta komuna. Garajea eta ganbara. LEHEN 170.000 € / ORAIN **160.000 € E.E.Z=Bidean**

//BERRIAK

DURANGO-ALLUITZ KALEA: 4 logela, sukaldea, garbitokia, egongela eta 2 komun. Igogailua. Ganbara eta garaje itxia. **320.000 € / E.E.E=E**

DURANGO-ASKATASUN ETORBIDEA: 3 logela, sukalde-egongela balkoiagaz eta 2 komun. Igogailua. **280.000 € / E.E.Z =E**

Botikak

BARIKUA, 4 - 09:00-09:00

IRIGOIEN

Bixente Kapanaga 3 - **IURRETA**

IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15
- **ZORNOTZA**

09:00-22:00

SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte
poligonoa, 4 P8 - **ABADIÑO**

SARASKETA, DIEGO Luis
Urrangoetxea 5 - **ZORNOTZA**

ZAPATUA, 5 - 09:00-09:00

SARRIA Sasikoa 17, **DURANGO**

IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15
- **ZORNOTZA**

09:00-13:30

UNAMUNZAGA Muruetatorre 2C -
DURANGO

BALENCIAGA

Ezkurdi plaza 8 - **DURANGO**

SADURANGO

CAMPILLO Montevideo etorb. 24 -
DURANGO

BAZAN DIAZ Uribarri 5 - **DURANGO**

NAVARRO Artekalea 6 - **DURANGO**

DE DIEGO Intxaurrondo 22. - **DURANGO**

JAIO-ABENDIBAR

Errekakale 6. - **ELORRIO**

EGUREN, ISABEL

Trañabarren 15. - **ABADIÑO**

GUTIERREZ, IBAN Txiki

Otaegi 3 - **ZORNOTZA**

MELERO, ROSA MARI

San Pedro 31 - **ZORNOTZA**

09:00-14:00

IRIGOIEN Bixente Kapanaga 3 - **IURRETA**

09:00-22:00

SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte
poligonoa, 4 P8 - **ABADIÑO**

SARASKETA, DIEGO Luis
Urrangoetxea 5 - **ZORNOTZA**

DOMEKA, 6 - 09:00-09:00

UNAMUNZAGA Muruetatorre 2C -
DURANGO

IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15
- **ZORNOTZA**

09:00-22:00

SARASKETA, DIEGO Luis
Urrangoetxea 5 - **ZORNOTZA**

ASTELEHENA, 7 - 09:00-09:00

CAMPILLO Montevideo etorb. 24 -
DURANGO

GUTIERREZ, IBAN Txiki
Otaegi 3 - **ZORNOTZA**

09:00-22:00

SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte
poligonoa, 4 P8 - **ABADIÑO**

SARASKETA, DIEGO Luis
Urrangoetxea 5 - **ZORNOTZA**

IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15
- **ZORNOTZA**

MARTITZENA, 8 - 09:00-09:00

NAVARRO Artekalea 6 - **DURANGO**

GUTIERREZ, IBAN Txiki

Otaegi 3 - **ZORNOTZA**

09:00-22:00

SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte
poligonoa, 4 P8 - **ABADIÑO**

IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15
- **ZORNOTZA**

SARASKETA, DIEGO Luis
Urrangoetxea 5 - **ZORNOTZA**

EGUAZTENA, 9 - 09:00-09:00

ETXEBARRIA

Montevideo etorb. 2. - **DURANGO**

GUTIERREZ, IBAN Txiki

Otaegi 3 - **ZORNOTZA**

09:00-22:00

SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte
poligonoa, 4 P8 - **ABADIÑO**

IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15
- **ZORNOTZA**

SARASKETA, DIEGO Luis
Urrangoetxea 5 - **ZORNOTZA**

EGUENA, 10 - 09:00-09:00

BAZAN DIAZ Uribarri 5 - **DURANGO**

GUTIERREZ, IBAN Txiki
Otaegi 3 - **ZORNOTZA**

09:00-22:00

SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte
poligonoa, 4 P8 - **ABADIÑO**

IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15
- **ZORNOTZA**

SARASKETA, DIEGO Luis
Urrangoetxea 5 - **ZORNOTZA**

Zorion Agurrak

ZORIONAK@ANBOTO.ORG • EGUAZTENeko 14:00AKARTEKO EPEA



GOZATU GOZOTEGI-OKINDEGIA

Ermodo, 11 DURANGO - Tel.: 946 201 663
gozatudurango@gmail.com
facebook: Gozatu Gozotegia



Etxahunek 9 urte egin ditu. Zorionak etxeko guztion partez! Mosu handi bat!



Uztailaren 25ean urteak egin zenduzen. Besarkada handi bat Durangoko familiaren partez eta jarraitu beti bezain zoriontsu.



Emoten dau argazki hau atzo atara eutsuela, baina zenbat aldatu dien gauzak argazki hontatik... Orduen pampina bat zeunken eskuen eta oin neskatala polit-polit bat. Zorionak amatxo eta 27 belarri tirekada!



Zorionak, **Ibon!** Musu handi bat eta basarkada bat Inhar, Eider eta Rakelen partez.



Manexek hiru urtetxo egin dauz gaur! Zorionak lurretako eta Markinako familiaren partez. Batez ere, Izar, Amaiur, Oinatz eta Paulen partez! Pastel goxue jan eta ondo pasau zure urtegunien.



Abuztuaren 31n gure alaba **Eiderren** urtebetetzea izan zan. Zorionak Inhar, Ibon eta Rakelen partez.

Eskela



Maria Teresa Basabe Amezua

Elkartuko gara berriro gure betiko lekuetan
Egunak hobeak baitira zurekin batera

Maite zaitugu



saltsan.com

Egoera berezi honetan
MAKALLAU SALT SAN
KATERIN zabalik dago!

Enkarguak egiteko edo informaziorako,
telefonoz edo **whatsapp** bidez gugaz
kontaktuan jarri:

688 773 205 / 688 734 329

#etorritadastau #unezailetanerezureondoan

BODEGUILLA



TRANA-MATIENA
Tel.: 94 681 43 85



Seguros Bilbao

RUEDA BILBAO
ASEGURUAK
Jabier Rueda

Landako etorbidea, 1 DURANGO

ORDUTEGI BERRIA: Astelehenetik
ostiralera, 9:00etatik 15:30era

Zenbaki hauetan emango diogu lehentasuna bezeroari:
946 20 27 10 / 688 86 11 37

Egunero eskainiko dizugu gure arreta ondorengo helbidean:
jrueda@segurosbilbao.com

ELORRIO • AITZIBER BASAURI

Aurkene Pagaldayk afizioa ofizio bihurtu du. Eskuz landutako bitxiak egiten ditu, gero azoketan saltzeko. Bartzelonan ingeniari-tza ikasketak amaituta, bitxigintza modulua egin zuen Donostian. Orduan murgildu zen zilarren munduan, orain zortzi urte. Madrilen osatu zituen bitxigintza ikasketak. Elorrioko Eixu artisau elkarteko kide da Pagalday, eta, aurrera begira, azokak antolatzeari dute erronka nagusi.

Zer dela-eta hasi zinen bitxiak egiten?

Betidanik erakarri nau bitxigintzak. Zilarraz hasi aurretik, makrameaz eta feltroaz egiten nituen eskumuturrekoak, gantxoak, lepokoak... Zaletasuna nuen eta egindako lanak azoketan saltzen hasi nintzen. Askok gustatzen zait azoketan sortzen den giroa, bezeroaz dugun hartu-eman zuzena.

Eta afizioa ogibide bihurtu zenuen.

Hala da. Ez da erraza, nik eramaten dudalako dena. Lan handia eskatzen du, baina gustura egiten dut.

Eskuz egiten dituzu bitxiak, eta prozesu osoa zeuk egiten duzu.

Bai, laban granaila desegin ondoren, zilar xafak eta lingoteak egiten ditut bitxia sortzeko, gero behar dudana neurritan moldatzeko. Orain arte zilarra baino ez dut erabili nik sortutako bitxietan, akabera desberdinekin: zilarrari itxura beltza emanez, zilarraz batera ebanoa ere erabili dut... Baina konfinamenduaren ondoren sortutako 'Bizi' kolekzioan kolorea sartu dut; gogoan nuen bitxietan kolore apur bat sartzeko. Enkargu bereziak egiten ditudanean, diseinua bezeroaz adosten dut, elkarrengatik lantzen dugu ideia. Ikasketak prozesu etengabea da bitxigintza, proba asko egin ondoren sortzen ditut kolekzioak.

Zer sentitzen du norberak sortutako bitxiak kalean ikustean?

Satisfazioa. Poza ematen du jendeak norberak egindako lanari balioa ematen diola ikusteak, are gehiago kontsumoa nagusi den sasoi honetan. Onartu behar dut atentzioa ematen didala zuk sortutako bitxia inork daramala ikusteak.

Zerk du arrakastarik gehien?

Belarritakoei, dudarik barik. Hala ere, eratzunak eta lepokoak ere

"Sortzen ditudan bitxiak nahiko geometrikoak dira, neure modukoak"

Aurkene Pagaldayk zilarrezko bitxiak egiten ditu, KENIKA izenagaz. Sare sozialen bitartez eta herririk herri antolatutako azoketan erakutsi eta saltzen ditu bere lanak



egiten ditut. Eskumuturrekoak gutxiago.

Zerk inspiratzen zaitu?

Edozein tokitan topatu nezake inspirazioa. Nire diseinuak nahiko geometrikoak dira, neure modukoak.

Zein bitxi mota gustatzen zaizu zuri?

Neuk egindakoak (barrez).

Zelan definituko zenuke zeure estiloa?

Egunerokoa erabiltzeko diren bitxiak sortzen ditut, erosoak eta forma geometrikodunak. Artisanatza, eskuz egindako lana, baloratzen duenarentzat sortutako bitxiak egiten ditut.

Zein da epe labur-ertainerako duzun erronka?

Eixu elkartearen bitartez azoka gehiago antolatzea. COVID-19ak sortutako pandemiaren eraginez, herri askotan bertan behera utzi dituzte azokak, eta nik azoketan saltzen dut gehien. Azken hile hauetan bitxiak sortzen ibili naiz, produzitzen, lana aurreratzen azokak antolatzen direnerako, eta gogotsu nago azoketan sortzen den giroaz gozatzeko.

Jendea gogoz dago azoketara joateko, eta artisauok ere gogotsu gaude geure lanak plazaratzeko"

Jendea gogoz dago azoketara joateko, eta artisauok ere gogotsu gaude geure lanak plazaratzeko. Egoera berezia bizi dugu, baina Euskal Herrian azoka asko antolatzen dira herriko jaien bueltan. Zortedunak gara. Izan ere, artisautzan jarraitzeko bultzada ematen du horrek.

Baikor zaude?

Bai, eta gogotsu nago lanerako eta azokak antolatzeko. Hala ere, ikusi egin behar zelan doan dena. Durangoko Azokaren bueltan artisau alternatiboa antolatu dugu azken lau urteetan, Andra Mariko elizpean. Ea aurtan. Gabonak ere sasoi ona dira salmentarako.

Lau hortza

Bixente Aizpura
Irakaslea



Eskerrik asko

Oraindik gure inguruan bueltak eta bueltak dabilen pandemia honek argi utzi du zein garrantzitsua den gure abeltzain eta nekazarien lana. Gure sabelak asetzeko jo eta ke ibili dira lanean, lapiko eta zartaginetan zerbait egon zedin orain eramateko.

Norbaitek pentsatu du zeintzuk diren beraiek dituzten eragozpenak eguneroko lana aurrera ateratzeko? Askotan, lan erraldoi hori eskertu eta goraipatu beharrean, oztipoak baino ez dizkiegu jartzen beraien eguneroko lanean.

Lan gogor eta askotan onartzen ez diegun meritu horren adibide batzuk baino ez dizkizue jartzen baserritarren seme eta anaia naizen honek:

Txakurrak lotuta eraman beharrean solte eramatearen ondorioa behiak edo ardiak uxatu eta txahala edo arkumea bota.

Larretako zerradurak zabalik utzi eta ganaduak alde egin.

Uzta babesteko, udaltzaingoan aipatu ondoren, tiroa edo "pastore" elektrikoa jartzeagatik denuntziak jarri. Denuntziatzen duten horiek zergatik ez dira etortzen pizti horiek (bela, mika, basurde, ...) "kariño" guztiarekin uxatzen?

Landatzeko lur eta larre onenak eraikinez bete.

Beraien izerdi gordinarekin lortutako lana gutxi ordaindu.

Baserrir inguruak baliabidez nahiko prekariora aurkitzen dira. Zergatik ez dira bideak egoki mantentzen? Beraien lana zuzenean saltzeko, zergatik ez dira interneteko konexioak hobetzen?

Hitzek ez dute ezertarako balio hau hobetzeko ekintzekin bat ez badatoz. Ea dagokionak edo dagokienez zezenari adarretatik heltzen dioten eta gizon-emakume ausart hauen lana hobetzeko baliabideak martxan jartzen dituzten.

ANBOTOK eskaintzen didan leihotxo hau baliatuz, aurrera jarraitzen animatzen zaituztet, zuek baitzarete gure ingurua eta gure osasuna egoki zaintzen duzuenak.

Eskerrik asko abeltzain eta nekazari jaun-andreei!



Hizkuntza Eskola Ofiziala
Escuela Oficial de Idiomas

Matrikula zabalik

ON-LINE

1. fasea: irailaren 1etik 28ra
2. fasea: irailaren 28tik urriaren 15era

PRESENTZIALA

Azaroaren 2an

72,36€ ikasturte osoa

www.eoidurangoheo.hezkuntza.net

94 620 33 42 - 94 681 66 45

